

Gainbegiratua Aristotelesen *Erretorikari**

ELENA REDONDO MOYANO

Filologia, Geografia eta Historia fakultatea

EHU

(Overview of Aristotle's *Rhetoric*)

Abstract

The 20th century rediscovered the social and pragmatic aspects of ancient rhetoric. A pioneer of this approach was Aristotle with his Rhetoric. The present study offers a synthesis of Aristotle's vision on the art of speaking, presenting it within its cultural context and emphasizing the essential elements that make it useful nowadays. After a brief introduction to Greek rhetoric and to Aristotle's life and work (§ 1), I make a commented description of three books of his Rhetoric (§ 2) and finish pointing out what I take to be its most important features (§ 3).

Keywords: Ancient Greek Rhetoric, Aristotle, Art of Speech.

1. Sarrera

1.1. Erretorika, gaur

Elhuyar Hiztegian honako sarrera hau aurki dezakegu: «erretorika. izena. (Lagunarteko hizkerako hitz edo adiera) Palabrería, retahíla. *Deabrua ere nahastuko lukete erretorika horrekin*: engañarían hasta al demonio con esa palabrería». Sarasolaren *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegiako* hitz berean aurkitzen dugun definizioa «hizketa luze eta aspergarria» da¹. Forma aldetik, «erretorika» euskal fonetikara egindako moldaketa bat da. Moldatu dena hitz latindarra da, (*ars*) *rhetorica*, eta honek heleniarren *téchne rhetoriké*, arte erretorikoa,

* Lan hau PI 1/UPV 00106.130-H-15915/2004 ikerkuntza proiektuaren barruan egin dugu. Lehenengo bertsio bat Iruñean irakurri genuen, 2005. urteko UEUko «Aristotelesen Filosofia» ikas-taroaren barruan. Euskaratzeko eman didan laguntzagatik Guadalupe Lopetegi Senperenari esker-erak ematen dizkiot.

¹ Ik. Elhuyar, 2000 eta Sarasola, 1984, *ad locum*.

itzultzen zuen. Esanahia aldetik, oso ondo erakusten du jendeak hitz horri buruz zeukan eta gaur ere daukan ideia: hitz asko, interes handia sortzen ez dutenak, eta batzutan engainatzeko erabiltzen direnak.

Erretorika, hain zuzen ere, oso diziplina desprestigiatua izan da xx. mendera arte. xix. mendeko erromantikoentzat askatasun sortzailea galarazten zuen arau bilduma bat besterik ez zen, artifizio eta egia-ezaren sinonimoa².

xx. mendetik hona erretorikak berpizkunde bat ezagutu du, diskurtsoak sortzeko zientzia moduan, komunikazioa sortzeko tresna bezala³. Eta erretorika berri horrek heleniarren erretorikan, eta bereziki Aristotelesen *Erretorikan* lehenengo oinarria dauka.

1.2. Erretorika heleniarren artean

Heleniarrek betidanik *lógos*-ak -hitz horrek daukan bi esanahiekin⁴, hitza eta pentsamendua- konbentzitzeko zeukan ahalmenean interes handia erakutsi zuten. Dagoeneko *Iliadan* eta *Odisean* heroi homerotarrek borrokatzen eta jendearen aurrean hitz egiten jakin behar zuten. Baina diskurtsoaren artea V. mendeko Atenasen bereziki garatu zen hiru faktore nagusiri esker: ahozkotasuna, demokrazia eta sofistika⁵. Lehenengoak heleniar kulturaren tradizio luzea zuen, baina beste biak mende hartan garatu ziren. Demokraziarekin batera denek lortu zuten, alde batetik, hitza erabiltzeko eskubidea (*isogoría*) eta adierazpen askatasuna (*parresía*), eta, bestetik, legearen aurrean berdintasuna (*isonomía*). Herritar eskubideak defendatzeko eta, are gehiago, politikan parte hartzeko, Asanbladan bildutako herritarrek konbentzitzen jakitea guztiz beharrezkoa zen, diskurtso politiko edo eztabaidazkoa jorratuz; tribunal baten aurrean norberaren burua defendatzen jakitea, diskurtso judicial baten bidez⁶, eta, azkenik, herri ospakizun desberdinetan goraiipamen (edo gaitzespen) diskurtsoak, epidiktikoak deitzen zirenak, osatzen jakitea, adibidez *polis* edo aberriaren defentsan hil zirenen aldekoak.

Bestalde, garaiko mugimendu intelektualak, sofistika, *lógos*-ak zeukan boterea, bai gizabanakoak, bai masak mugitzeko eta gidatzeko, aztertu zuen

² Erretorikaren historiaren laburpen baterako, ik. Estébanez Calderón, 1999 eta Beristáin, 1997, bietan *ad locum*.

³ Ik. López Eire, 1995, *passim*, baina bereziki 1. kapitulua.

⁴ Hitz horren esanahi bikoitzari buruz, ik. Rackham, 1957, 262 t. hur.

⁵ Ik. López Eire, 2002, 170 t. hur.

⁶ V. mendeko Atenaseko prozedura judicialaren arabera norberak bere burua defendatzen zuen herritarrek osatutako tribunal baten aurrean; horrela izanik, defentsa diskurtsoa egiteko, abokatu (*sunégoros*) edo *logógrafo* izeneko profesional baten lana kontratatzen zen eta horrek osatutako diskurtsoa buruz ikasten zen, ik. Kennedy, 1968, 421 eta 427, eta Melero, 1996, 271, 11. oh.

arreta handiz. Hain zuzen ere, norabide batera edo bestera herritarrak bultzatzeko ahalmena zeukan botere hori, egia absoluturik ez zegoelako seinalea zen⁷, eta, horrenbestez, bakoitzak indar osoz bere egia partikularra defendatzeko eskubidea zeukala aldarrikatzen zuten sofistek⁸.

Tradizioak⁹ Korax eta Tisias (Sirakusakoak), Empedokles (Akragantekoa, K. a. 493-433), Gorgias (Leontinosekoa, K. a. 483-375) eta Protagoras (Abderakoa —Trazia—, K. a. 490-420) izenekin lotzen du erretorikaren jaiotza; lehenengo laurak Siziliakoak dira, eta, hain zuzen ere, irla horretan sortu zen erretorika, tiraniak amaitu eta demokraziak sortu zirenean (V. mendearen lehenengo erdian), helburu praktiko batekin, hots, tiranoek kendutako ondusunak berreskuratzeko¹⁰. Gorgias sofista bat zen; K. a. 427. urtean enbaxada baten barruan Atenasera iritsi zen eta hango bizitza intelektualean eragin handia izan zuen; sofistaren artean oratoriaren sortzailea¹¹ bera izan zen iturri batzuen arabera¹².

Erretorika izenpean diskurtsoak egiten irakasteko teknika eta gogoeta bilduma jaso zen. Arte erretorikoaren lehenengo zeregina izan zen bereziki arrakastatsuak izan ziren diskurtso zatiak biltzea, gero beste diskurtso batean zati horiek moldatzeko. Gainera, irakasleek, ikasleek ikasi eta imitatu behar zituzten diskurtsoak sortzen zituzten. IV. mendeko Atenasen erretorika eskola egonkorra fundatu ziren, horien artean famatuena Isokratesena zelarik.

Isokrates (K. a. 436-338) Gorgiasen ikaslea izan zen eta bere maisuarengandik ikasi zuen estiloa zaintzen arreta handiz. Hizlari trebe horren arabera,

⁷ Adibidez, Abderako Protagorasek, *Hodeiak* Aristotelesen komedian eta *Protagoras* Platonen el-karrizketan agertzen denak, honela arrazoitzen zuen: egoera zehatz bati buruzko egiaz ziur egotea ezinezkoa denez, beti bi diskurtso dira posible eta bakoitzak bere ikuspuntua defendatzeko eskubidea dauka. Interpretazio horri jarraituz, bere ikasleei gai beraren bi aldeak eztabaidatzen irakasten zien, horrela erarik onenean irakasten zirelakoan. Orokorrean, sofistek buruz, ik. Melero, 1996, 7-60.

⁸ Interpretazio horrekin erlatibismo moralera iristea eta elokuentzia justua zein injustua erabiltzea eraza zen; hain zuzen ere, sofistek injustua zenaren alde jartzea leporatzen zien, eta ideia hori aurkitzen da, topiko moduan, sofistek kontrako testuinguruetan: Aristoteles, *Erretorika* 1372.a.10 t. hur., Platon, *Apologia* 17.a-b eta Isokrates, *Eutinoren kontra* § 5.

⁹ Ik. Aristoteles, *Ezeztatze Sofistikoak*, 183.b.29, Zizeron, *Brutus* 46, Kintiliano, III 1, 8 t. hur. Platonen *Fedron* (266.d.5 t. hur.) garaiko erretorikari gainbegirada egiten zaio, maisu zaharrak ere aipatzen dituelarik.

¹⁰ Ik. Aristoteles, *Erretorika* 1424.d. Siziliako erretorikarekin lotzen da erretorika pertsuasioaren egilea (πειθοῦς δημιουργός, hitz platonikoetan, ik. *Gorgias* 453.a.2, eta han, guk erabilitako edizioan, 2000, 23, agertzen den 105 oh.) delako irizpidea, litekeenaren argudioa (εἰκός) eta diskurtsoaren egituratze lana: ik. Tovar, 1990, IX.

¹¹ Gorgias famatua zen bere diskurtsoetan erakusten zuen musikaltasunagatik; figura erretoriko ugari erabiltzen zuen (ik. Melero, 1996, 151, 10. oh.) eta materia antolatzean joskeraz simetrikoki eta antitetikoak gogoko zituen. Errekurtso horiekin prosa artistiko bat eratzen saiatzen zen, entzuleriarengan plazera sortzen zuena (ik. *Helenaren Enkomioa*, 5) poesiak zeukan arimak bereganatzeko ahalmen berdina (ψυχαιωγία) lortzeko asmotan.

¹² Ik. Filostrato, *Sofisten bizitza*, I 9, 1 t. hur., Siziliako Diodoro, XII 53 eta Platon, *Hipias Handia*, 282.b.

diskurtso onak egiteko gaitasun naturalak, praktika ugari eta hezkuntza on bat beharrezkoak ziren. Hezkuntza horri, bere eskolan ematen zenari¹³, *filosofia* deitzen zion berak. Izan ere, Aristotelesek ere noizbehinka erabiltzen du hitz hori *Erretorikan* bertan¹⁴, ariketa edo buru-diziplina, espezializazio gabeakoa, adierazteko; baina, orokorrean, bai berak, bai Platonek (K. a. 427-347) egia bilatzen zuen hezkuntza abstraktua adierazteko erabiltzen zuten. Isokratesek bere eskolan eskaintzen zuena zen, batez ere, ikasketa plan praktikoa, estatu gizonak hezitzeko egokia, bere ikasgai nagusia erretorika zelarik. Erretorika horren eginkizun nagusia diskurtsoaren zatiketa eta egituratze lana zen¹⁵. Isokrates eta Platonen artean aurkakotasun ideologikoa egon zen¹⁶ eta, Zizeronen arabera¹⁷, aurkakotasun hori Aristotelesengana ere zabaldu zen.

1.3. Aristotelesen bizitza. Akademia. Grilo. Lizeoa

Aristoteles (K. a. 384-322) 18 urte bete arte Mazedonian egon zen; bere aita Amintas III. erregearen medikua izan zen, eta, beraz, bere bizitzaren lehenengo urteetatik Aristotelesek Mazedoniako gortearekin harremanak eduki zituen eta estatu horrek zeukan jarrera politikoaren aldekoa agertu zen. Garai hartan Mazedonia iparraldeko erresuma bat zen, korrante kulturaletatik oso urrun zegoena. Horregatik, bere hezkuntza hobetzeko, Aristoteles Atenasera joan zen, garaiko eskolarik famatuenera, Platonek sortutako Akademiara, eta han eman zituen hogeitau urte, ikasle eta ikertzaile moduan, eskolako maisua hil arte (K. a. 347). Han zegoelarik, idatzi zuen erretorikari buruzko bere lehenengo lana, *Grilo*, *Erretorikari buruz* azpiztitulua zeramana eta galdu egin dena¹⁸.

Ikertzaile guztien arabera, *Grilo* elkarrizketa bat zen, lan platonikoen antzekoa, eta edukiaren aldetik, Platonen *Gorgias* elkarrizketan agertzen den erretorikari buruzko teoriarekin erlazionatu izan da¹⁹. Horrela ikusten da geratu den fragmentu bakarrean²⁰, non erretorika arte bat ez zela eta horren helburua

¹³ Hezkuntza hori *Sofisten kontran* (K. a. 391) eta *Antidosisean* (K. a. 353) azaltzen da. Laburpen baterako, ik. Guzmán Hermida, 1979, 31-36. Hezkuntza horren oihartzuna zabala izan zen erretorika eskola erromatarretan eta, hauen bitartez, Europan eta Amerikan.

¹⁴ Ik. *Erretorika* 1394.a.5.

¹⁵ Ik. Aristotelesen *Erretorikan*, 1414.a.37-b.18, non Isokratesek egindako zatiketa kritikatzat den.

¹⁶ Ik. Kennedy, 1963, 185 eta 90. oh.

¹⁷ Ik. *Brutus* 141.

¹⁸ Lan hori Diogenes Laerzioren katalogoan (ik. § 1.4) agertzen da, 5. lekuan. Grilo gaztea Mantineako batailan hil zen eta jendeak enkomio eta epitafio ugari eskaini zion. Diogenesen arabera (II 55) Aristotelesek idatzi zuen elkarrizketa hori erreazio moduan, zeren eta bere ustez go-raipamenak egiten baitziren Griloren aitaren (oso boteretsua zen Jenofonteren) oniritzia lortzeko. Mantineako bataila K. a. 362. urtean gertatu zen, eta handik gutxira idatziko zen aipatutako liburua. *Grilori* buruz eta Isokratesen kontrako polemikarekin erlazionatua, ik. Tovar, 1990, XXII ss.

¹⁹ Elkarrizketa horrekiko harremana Jaegerek, 2001, 41 t. hur., defendatu zuen.

²⁰ *Fr.* 68, Ross, 1955.

jendeari gustatzen zitzaizkion diskurtsoak egitea zela defendatzen zuen: hain zuzen ere, bai *Gorgias*²¹ bai *Fedro*²² elkarrizketetan ideia horiek irakur daitezke.

K. a. 347. urtean Aristotelesek Atenasetik alde egin zuen. Alde egite horren arrazoiak neurri handi batean politikoak izan ziren: Mazedoniako Filipo erregearen politika espantsionista zela eta, Atenasen Mazedoniaren aurkako mugimendua sortu zen, Demostenes hizlari eta politikariak gidatua. Aristoteles Asia Txikiko leku batzuetan (Asso, Mitilene) egon zen K. a. 343 arte. Urte horretan Mazedoniako Filipo erregeak deitu zuen Miezara, Alexandro bere semearen irakaskuntzan parte hartzeko. Gortean egon zen, Alexandro Filipo-
ren erregentea izendatua izan zen arte (K. a. 340). Orduan, bere jaioterrira, Estagirara, itzuli zen, eta han, bere ikasle Teofrastorekin batera, bere ikerkuntza lanekin jarraitu zuen. K. a. 335ean Filipo hil zen eta Alexandrok eutsi zion Grezia osoaren gainean bere aitak zuen botereari. Behin egoera politiko-
koa segurua izanik, Aristoteles berriro Atenasera abiatu zen, eta han, ohikoa zen bezala, aukeratu zuen leku bat bere eskolak emateko, Lizeo izena zuen eta Apolori eskainia zegoen baso baten ondoan, non eraikuntza batzuk alokatu zituen, haien artean gimnasio bat eta teilatua zuen pasealeku bat, *perípatos* grezieraz, gero eskola izendatzeko erabiliko zena²³. Ez zen itzuli Akademiara, alde batetik, bere interes zientifikoak Akademiatik oso urrun zeudelako, eta, bestalde, bere jarrera politikoarengatik, zeren eta Akademia Mazedoniako erregearen kontrakoa baitzen.

Han irakaskuntzan zein ikerkuntzan hamahiru urte eman zituen, K. a. 323an Alexandro hil zen arte. Orduan, Atenaseko Mazedoniaren kontrako mugimenduak indarberritu ziren eta Asanbladak Antipatroren kontra, hots Alexandroren ondorengoaren kontra, gerra egitea erabaki zuen. Aristotelesi, Sokratesi bezalaxe, fedegabekoa izatea leporatu zioten, baina Sokratesek ez bezala, Aristotelesek nahiago izan zuen alde egin eta Eubeako Kalzis hirian babestu zen, non amaren partetik jabego bat zeukan; han hil zen hurrengo urtean (K. a. 322), 63 urte zituelarik.

1.4. Aristoteles: lanak eta transmisioa²⁴

Lizeoan bi irakaskuntza mota zeuden: bata, *akroatikoa*²⁵ edo «entzutekoa», goizez ematen zen eta filosofia, dialektika eta naturari buruzko ikerke-

²¹ 462.c t. hur.

²² 276.e.

²³ Toki hori, Diogenes Laerzioren arabera (V 2) Sokratesen gustukoa ere bazen. Gero Faleroko Demetriok erosi zuen eta han irakatsi zuen Teofrastok: ik. Díaz Tejera, 1988, 690-691.

²⁴ Transmisioari buruzko datuentzat, ik. Díaz Tejera, 1988, 692-694.

²⁵ Hitz horrek irakaskuntza ahozkoa zela adierazten zuen: *akroáomai* aditzak esan nahi du «entzun», eta erro bereko izenlagunak, *akroatikós*, edota bere sinonimoa den *akroamatikós* (Plutarkok, *Alexandron* 7, 668.b.1, erabiltzen duena), «entzutekoa»; biak irakaskuntza mota bat zehazte-

taz arduratzen zen; gaiak zailak zirenez gero, Aristotelesek berak parte hartzen zuen eta entzuten zutenak ezagupen sakonak zituzten ikasleak ziren. Bestea *exoterikoa* zen, hots, «kanpokoei zuzendutakoa»; arratsaldez ematen zen, gai humanista eta politikoak jorratzen zituen eta ez zuen ezagupen go-
renik eskatzen.

Desberdintasun hori Aristotelesen liburu eta publikazioetan ere egin zen. Horrela publikatzeko edo Lizeotik kanpo irakurtzeko prestatu ziren idatziak *exoterikoak* deitzen ziren eta elkarrizketa egitura zeukaten, Platonen eredia jarraituz. Ia guztiak galdu dira eta zati labur batzuk bakarrik iritsi zaizkigu²⁶. Gainerako lanek, egungo ikerlariak *esoterikoak* edo «barrukoentzat zuzendutakoak» deitzen dituztenek, osatzen dute gaur daukagun *Corpus Aristotelicum*, edo Aristotelesen lanen bilduma. *Corpus* hori, Rodaseko Andronikok, K. a. I. mendeko Lizeoko X. zuzendaria izan zenak, Aristotelesek gida moduan eskolak emateko edo ikerkuntza gauzatzeko erabiltzen zituen materialen gainean egindako elaborazio eta argitaratze lanaren emaitza da. Idatzi horiek ez ziren Aristotelesen bizitzan publikatzeko baizik eta ikasle aurreratuen artean irakurtzeko edo erabiltzeko. Estrabonen (K. o. 64-24 inguru) arabera²⁷, Aristoteles hil zenean, filosofoaren laguna eta Lizeoko zuzendaria zen Teofrastoren eskutan geratu ziren, eta horrek Aristotelesen lagun zahar bati, Neleori, eman zizkion²⁸; Neleok, bere aldetik, Asia Txikira -Eszepsisera- eraman zituen eta han egon ziren ezkutatuta Teoseko Apelikon izeneko bibliofiloaren eskuetara iritsi arte. Apelikonek Atenasera eraman zituen eta handik Erromara ailegatu ziren, Silasek, Atenas hartu eta gero (K. o. 87), eraman zuen botinaren barruan. Plutarkok²⁹ (K. o. 46-121) gauza bera kontatzen digu eta Apelikonen biblioteka Aristotelesen ia liburu guztiek osatzen zutela eta Erroman Aristotelesen mireslea zen Tiranion gramatikariak ordenatu zituela gaineratzen du. Hain zuzen ere, Androniko Tiranionen ikaslea izan zen, eta, segur aski, Aristotelesen edizioa egin zuenean maisuak hasitako lanarekin jarraitu zuen. Estrabonek eta Plutarkok ematen dituzten datuon arabera idatzi *akroatikoak*³⁰ Asia

ko erabiltzen ziren, non maisu batek ahozko eskolak ikasle zehatz batzuei, ezagunak eta adituak zirenei, ematen zizkien; horrela izanik, eskola horiek *esoterikoak* edo «barrukoentzat zuzenduak» ere deitzen ziren.

²⁶ Fragmentuak bilduta daude honako argitalpenetan: V. Rose, *Aristotelis qui ferebantur librorum fragmenta*, Berlin, 1831; R. Walter, *Aristotelis Dialogorum fragmenta selecta*, Florencia, 1934 eta Ross, 1955; guk erabili duguna azken hori izan da.

²⁷ XIII 1, 54.

²⁸ Berri hori osatzen da Diogenes Laerziok (V 52) ematen duen beste batekin: Teofrastok bere biblioteka osoa, alegia, bere liburuak eta Aristotelesenak, eman zizkion. Susma dezakegu Teofrastok hori egin zuela Aristotelesen lanak kontserbatzeko; hain zuzen ere, Peripatoaren egoera, Demetrio Poliorzetesek Atenasen kontra egindako setioa ondoren, oso zaila izango zela pentsa daiteke.

²⁹ *Sulla* 26, 1 t. hur.

³⁰ Idatzi *exoterikoak* kalean zeudela duda izpirik gabe onartzen da; ik. Estrabon, XIII 1, 54 non esaten den peripatetikoek liburu gutxi zeukatela, batez ere *exoterikoak*.

Txikian ezkutatuta egon zirela ondoriozta daiteke³¹, eta, beraz, Andronikok, K. a. 40-20 urteen bitartean edizioa egin zuen arte, Aristotelesen lan filosofi-koak ezezagunak izan ziren mendebaldean.

Bestalde, Ateneoren (K. o. II) arabera³², Neleok Lizeotik ekarritako liburu-zen zati handi bat Alexandriako Bibliotekara³³ saldu edo bidali zuen; beraz, Biblioteka horretan ere egon ziren Aristotelesen lan batzuk.

Hain konplikatua izan zen tradizio horren ondorioz, Andronikok egindako edizioaz gain, beste hiru katalogo ditugu, Aristotelesen lanak aipatzen dituztenak:

- Diogenes Laerziorena (K. o. III)³⁴;
- *Vita Menagianan* sartuta dagoena, Hesikioren (K. o. VI) katalogoa deitzen dena³⁵;
- eta Ptolomeorena deitzen dena³⁶, arabieraz kontserbatzen dena.

Azken hori Andronikok egindako katalogoan oinarritzen da³⁷, eta, beraz, bietan idatzi *akroatikoak* ordena berebetean agertzen dira. Baina Ptolomeorena baino zaharragoak diren beste bi katalogoetan aurkitzen ditugun liburuen izenburuak³⁸ ez daude beti ados *Corpusean* ditugun liburuen izen-

³¹ Konkretuki, Teofrasto hil geroztik. Suposatu da egoera hori dela Zizeronek (*Topica* 3) aipatzen duena, esaten duenean Aristoteles ez zela ezaguna izan filosofoen artean, gutxi batzuk (eta bera barru) kenduta. Hain zuzen ere, Zizeron Andronikok bere edizioa egin baino lehen hil zen (K. a. 43). Biblioteka horretara Aristotelesen lan batzuk berak ere eramán zitzakeen.

³² I 3.b.1. Hemen ere esaten da Ptolomeo Filadelfok (K. a. 308-246), Alejandriako bibliotekaren sortzaile izan zen Ptolomeo Soterren (K. a. 367-282) semeak, liburuak ekarri zituela Rodasetik; suposatu da Aristotelesen idatzi batzuk Rodasera eramán zituela Aristotelesen beste ikasle batek, Rodaseko Eudemok. Bestalde, Estrabonek (XIII 1, 54) aipatzen du Teofrastok lagundu ziola Alejandriako Biblioteka antolatzen, eta horrek esan nahi du harremana eduki zutela eta, segur aski, liburuak elkarri bidali zizkiotela.

³³ Faleroko Demetrio, peripatetiko eta Teofrastoren ikaslea, Atenaseko gobernadore militarra izan zen Demetrio Poliorzetesek hiri hori hartu zuenean. Ihes egitea lortu zuen eta Alexandriara abiatu zen; han, berri batzuen arabera (Diodoro Sikulo XX 45, 2-5 eta Estrabon IX 1, 20), hiri hartan Ptolomeo Soter erregeak sortu zuen Bibliotekaren eraketan lagundu zuen. Berak ere Aristotelesen lanak eramán zitzakeen Alexandriara.

³⁴ V 22-27.

³⁵ Aipatutako Hesikio Miletokoa zen, eta ez du zer ikusirik Alexandrian lan egin zuen izen bereko lexikografoarekin.

³⁶ Ptolomeo hori, batzuetan «atzerritarra» goitizena daukana, *Vita Martianan* eta *Vita Latinan* aipatzen den pertsonai ezezaguna da. Itzulpena, siriera-arabieraz egindakoa, neoplatonikoen artean koka daiteke. Itzulpen horri buruz, ik. Tovar, 1900, XLI, 107. oh.

³⁷ Horrela baieztatu daiteke hiru iturri hauen arabera: (1) Plutarkok dioenez (*Sulla* 26), «Rodaseko Andronikok, zeinek kopia asko zituen, egun dauden katalogoak idatzi zituen»; (2) Ptolomeoren Katalogo 97. zenbakian, Andronikok egin zuenaren gainean eginda dagoela esaten da; eta, (3) bai Ptolomeoren katalogoan, bai *Corpusean* agertzen den idatzien ordena berdina da. Ik., gainera, 39. oh.

³⁸ Bi katalogoak berdinak dira 139. zenbakira iritsi arte. Gero, Hesikiorenean, Diogenesenean agertzen ez diren zenbait izenburu, 140-197. bitartekoak, agertzen dira. Horiatariko batzuk *Corpusean* ere agertzen dira.

buruekin³⁹. Horrela gertatzen da, besteak beste, *Erretorikarekin*: katalogo zaharretan *Téchne rhetoriké* bat agertzen da, bi liburuk osatzen dutena eta argudiatzeari buruz ari dena; *Téchne* hori *Corpusean* agertzen diren lehenengo eta bigarren liburuekin bat dator, eta, bestalde, *Perì léxeos* edo «lengoiari buruz» izeneko liburu bat ere bereizita aipatzen da, zeina *Corpuseko* hirugarren libururekin bat datorren.

2. Erretorika

Transmisioan ikusi dugun bezala, *Erretorikaren* hiru liburuak ez zeuden hasiera batean elkartuta, eta nork batu zituen eztabaidagarria da⁴⁰. Bestalde, ikertzaile guztiek onartzen dute erretorika bizitza osoan interesatu zitzaiola Aristotelesi, eta kontserbatutako liburuek filosofoaren pentsamenduaren fase desberdinak islatzen dituztela.

Gehienek onartzen dute *Erretorikaren* funtsezko nukleoa goiztiarra dela, zeren eta estiloan, edukian eta argudiatzeko moduan *Topikoetatik* hurbil baitago⁴¹; gainera Isokratesen eskolaren kontrako polemikaren barruan kokatzen da⁴². Kennedyren arabera, *Erretorika* K. a. 350 inguruan idatzi zen, Aris-

³⁹ Alexandriara iritsi ziren Aristotelesen idatziak izango ziren edo lan guztien kopiak edo bakarrik *exoterikoak*. Azken horiek bakarrik izango balira, azalduta geratuko lirateke Diogenesen eta Hesikoreen katalogoek Ptolomeorenekin dauzkaten desberdintasunak: Diogenesen eta Hesikoreen zerrenda eratuko zen Alexandriara bidalitako lan horien gainean, eta, beraz, zerrenda horietako idatzi *exoterikoak* ondo zehaztuta daude, lan filosofikoen zerrenda ordenarik gabekoa eta osatugabea den bitartean. Dena den, tesi hori ez da batere segurua, eta horregatik bi katalogo horien iturria eztabaidagaia da: batzuek pentsatzen dute K. a. 200. urtearen inguruan Alexandriako liburutegia, Hermipo, izan zela; baina beste batzuen iritziz, K. a. III. mendean Lizeoko zuzendaria Zeoseko Ariston izan zen. Dena den, bi katalogoren arteko ezberdintasunek Peripatoan katalogoa eratu zenaren iritzia zaila egiten dute. Bestalde, Ptolomeoren zerrenda Andronikok landutako testuaren gainean eratuko zen (ik. Aurreko oharra); hain zuzen ere, ezingo ziren Alexandriako Bibliotekan zeuden liburuak erabili, zeren eta gehienak, suak eraginda, K. a. 47. urtean hondatu baitziren (ik. Dion Kasio XLII 38 eta Seneka, *Tranq.* 9, 5: azken horrek aipatzen du 40.000 bolumen erre zirela). Gaineratu behar da, Plutarkoren arabera (*Lucullus* 42), Lukulok, Amiso hiria hartu eta gero, Aristotelesen liburu asko Erromara eramane zituela, baita Tiranion bera ere. Díaz Tejeraren iritziz, 1988, 696-697, litekeena da, Silaren semea, Lukulo, hil zenean (K. a. 47), Tiranionek bi biblioteken ardura izatea eta editatzearen plana egitea, gero bere ikasle Andronikok gauzatu zuena.

⁴⁰ Ik. § 2.3.

⁴¹ *Topikoak Organonaren* barruan sailkatu zituen Andronikok; hain zuzen ere, *Organon* hitzak «tresna» esan nahi du, eta izen horren pean logika eta metodoari buruzko lanak, tresna moduan zientzietan eta arteetan erabiltzen zirenak, aurkitzen dira. *Erretorikan*, 1397.a.7 t. hur., *Topikoen* laburpen bat egiten da, eta 1400.b.33 t. hur., *Ezeztatze Sofistikoen* bertsio laburtu bat ematen da: ik. Díaz Tejera, 1988, 724-25.

⁴² Zizeronek esaten digu Aristoteles erretorika maisua zela eta Isokratesen kontrako lehia aipatzen du, ik. *De oratore* III 141 eta *Tusculanae disputationes* I 4.

toteles oraindik Akademian zegoelarik, eta erretorika eskolak ematen zituenean, hain zuzen ere Isokratesen eraginari aurre egiteko⁴³. Lehenengo erre-dakzio horretan teoria platonikoarekin erlazionatuta zeuden ikuspuntu batzuk agertzen ziren, gero Aristotelesek alde batera utziko zituenak. Hasierako nukleo hori, edo Estagiran⁴⁴, K. a. 340 inguruan, edo Lizeoan, K. a. 335-330 inguruan⁴⁵ errebisatua eta osatua izan zen.

2.1. Lehenengo liburuaren hasieran erretorika zer den eta jakintzen ar-tean bere estatusa zein den azaltzen da:

(1) «Erretorika dialektikaren *antístrofos*-a da; hain zuzen ere, biak ari dira nolabait guztiontzako komunak diren ezagueretaz, eta ez zientzia zehatz bati dagozkionetaz. Horregatik, denek nolabait parte hartzen dute bietan, zeren eta neurri batean denak saiatzen baitira, bai argudio bat bilatzen eta horri eusten, bai norbere burua defendatzen eta salatz-zen» (1354.a.1 t. hur.)⁴⁶.

Antístrofos hitza itzultzea zaila da, eta itzulpen gehienetan, guk egin dugun moduan, transliteratu egiten da. Platonek sortu zuen hitz hori, *antistré-phein* aditzaren erroan oinarrituta. Aditz horrekin teatroan koruak egiten zuen mugimendu bat izendatzen zen; lehenik, koru horiek norabide zehatz baterantz mugitzen ziren, *strofé* izeneko mugimendua eginez eta izen berbera eta metrika zehatz bat zeukan kantu zatia abestuz; gero, hasierako lekura itzultzen ziren, kontrako norabidea zuen dantza bat eginez eta *antístrofé* kantu zatia, *estrofé* deitutakoaren metrika berbera zeukana, abestuz. Beraz, metafora horrekin Aristotelesek esan nahi zuen, alde batetik, erretorika eta dialektika antzekoak zirela, hots, jakintza logiko-formalak⁴⁷, eta ez zientzia zehatz bati zegozkionak; horrela izanik, erretorika tresna bat zen, dialektika bezala, diskurtsoak antolatzeke balio zuena. Bestalde, erretorika eta dialektikaren artean nolabaiteko aurkakotasuna zegoela, eta horrela aurrerago emango diren beste definizio batzuei zabaltzen zien bidea⁴⁸.

⁴³ Kennedy, 1991, 5; garai hartan Aristotelesek lehenengo liburuaren (5-15 kapituluak) eta hirugarren liburuaren zati batzuk idatzi zituen. Isokratesen *Antidosis* liburua Aristotelesi emandako erantzuna izan daiteke, bere erretorikaren ideia defendatzeko.

⁴⁴ Edo orokorrean, Mazedonian, ik. Kennedy, 1991, 6.

⁴⁵ Ik. Tovar, 1990, XXXIV; Racionero, 1990, 479 eta Ramírez Trejo, 2002, XXXIII-XXXIV.

⁴⁶ Ἡ ῥητορικὴ ἐστὶν ἀντίστροφος τῆ διαλεκτικῆ· ἀμφότεραι γὰρ περὶ τοιούτων τιμῶν εἰσὶν ἃ κοινὰ τρόπον τινα ἀπάντων ἐστὶ γνωρίζειν καὶ οὐδεμιᾶς ἐπιστήμης ἀφορισμένης· διὸ καὶ πάντες τρόπον τινα μετέχουσιν ἀμφοῖν· πάντες γὰρ μέχρι τινὸς καὶ ἐξετάζειν καὶ ὑπέχειν λόγον καὶ ἀπολογεῖσθαι καὶ κατηγορεῖν ἐγχειροῦσιν. Testu hori eta hurrengoak Ross, 1959 (1964) edizioakoak dira.

⁴⁷ Ik. *Topikoen* hasiera: Tratatu honen helburua metodo bat aurkitzea da nondik aurrean jartzun zaigun problema orori buruz arrazoitu ahal dugun ... (100.a.18-20: Ἡ μὲν πρόθεσις τῆς πραγματείας μέθοδος εὐρεῖν ἀφ' ἧς διηρησόμεθα συλλογίζεσθαι περὶ παντὸς τοῦ προτεθέντος προβλήματος ...).

⁴⁸ Ik. Racionero, 1990, 160, 1. oh. Kennedyk ere, 1991, 28, 2. oh., esanahi hori aditzera ematen du, baina Ramírez Trejok, 2002, CXXXI-II, aldiz, *análoga* itzultzen du eta López Eirek,

Definizioaren bigarren zatian osatzen da lehenengoan esan dena: erretorika, zientzia zehatz bati dagokionaz ez aritzeaz gain, denek erabiltzen dute, bai eguneroko bizitzan, ohiko elkarrizketetan, argudioak bilatu eta horiei eusteko, bai egoera publikoetan. Eguneroko erabilpen horretan batzuk berezko gaitasun batez baliatzen dira, baina beste batzuek nola hitz egin behar den ikasi egin dute⁴⁹. Dena den, kasu bietan azter daiteke beraien helburuak nola lortzen dituzten eta jorratutako bidea teoriza daiteke, arte (*téchne*) batek egiten duen moduan; hain zuzen ere, heleniarren artean arteek aplikazio praktiko-produktibo bat edukitzen zuten eta zientziak gai espekulatiboez arduratzen ziren⁵⁰. Irizpide hori kontuan hartuta, hona hemen erretorikaren definizioa:

(2) «Izan bedi erretorika kasu bakoitzean konbentzitzeko egokia dena teorizatzeo gaitasuna» (1355.b.25)⁵¹.

Arte bat den aldetik, erretorikak badu bere eginkizuna, beste arteek bezala, baina, goian ere esan den legez, ez du tratatzen materia partikular bat, gainerako arteek bezala, eman dezagun aritmetika, zenbakiei buruz ari den artea, edota medikuntza, osasuna eta gaixotasunari buruz ari dena. Erretorikaren helburua, testu horren arabera, ez da konbentzitzea, baizik eta kasu bakoitzean konbentzitzeko balio duena aztertzea⁵²; dialektika bezala, materia guztietara⁵³ aplika daitekeen artea da erretorika. Horrela definitzean, Aristoteles, bai sofistengandik, bai Platonengandik aldentzen zen. Sofisten iritzia oso ondo azalduta dago Platonen *Gorgias* izeneko elkarrizketan. Hain ospetsua izan zen sofista horrek, Sokratesekin solasean, honela deskribatzen du erretorika, artea den aldetik: erretorikaren helburua diskurtsoak dira, eta diskurtso horiek giza eginkizun garrantzitsuenari eta onenari buruz ari dira, alegia, pertsuasioari buruz; pertsuasio hori justua zein injustua denari buruz ari da eta, bai tribunalen aurrean, bai masen artean gauzatzen da; batez ere, ezjakinen artean konfiantza lortzeko baliabidea da⁵⁴. Ikus daitekeenez, erretorika boterearekin lotuta eta politikaren barruan definitzen da; hain zuzen ere, Gorgiasentzat erretorikak bere baitan botere guztiak biltzen zituen, zeren eta menperatzen zuena bere iritzia inposatzeko gauza izango zen⁵⁵, eta, ukitzen zen materia ukitzen zelarik, horretan adituak zirenen gainetik egongo zen; hitz gutxitan, askatasun eta botere iturri zen erretorika. Polok, Gorgiasen

1995, 27, *homóloga a la Dialéctica* eta, 71.oh., *correlativa de la Dialéctica*. Dialektikaren eta sofistaren artean ematen zen eristika eta agonistikaren arteko desberdintasunetarako, ik. Guthrie, 1981, 166.

⁴⁹ 1354.a.6 t. hur.

⁵⁰ Ik. Racionero, 1990, 162, 2. oh.

⁵¹ Ἔστω δὴ ἡ ῥητορικὴ δυνάμις περὶ ἕκαστον τοῦ θεωρησαὶ τὸ ἐνδεχόμενον πιθανόν.

⁵² Ik.1355.b.9-10.

⁵³ Ik. 1355.b.31.

⁵⁴ 449.d.10 t. hur.

⁵⁵ 452.d.6 t. hur. eta 456.a.7 t. hur.

ikasleak, maisuaren teoriari eusten dio esanez erretorikak plazera sortzeko ahalmena duela⁵⁶ eta, beraz, erretorika menperatzen duenak tirano batek adina boterea daukala, kontuan hartuta heriotza zigorra emateko, erbestera-tzeko eta ondasunak konfiskatzeko boterea daukala⁵⁷.

Platonek, aldiz, elkarrizketa bereko bi testuingurutan erretorika arteen eremutik ateratzen du; batean, Sokratesen ahotsaren bidez, argudiatzen duenean erretorikak ez duela beste arteek daukaten ezaugarririk, hots, ez dela arrazoian oinarrituta dagoen zeregin bat, bere eginkizunen kontu emateko gauza dena⁵⁸, baizik eta *empeiria* edo ezaguera praktikoa dela, sukaldaritza bezala, plazera eta gustua sortzeko erabiltzen dena⁵⁹. Bestean, Kaliklesekin solasean, Sokratesek *téchne* edo arteari buruz definizio berri bat sartzen du inplizituki, eduki etikoa daukana, zeinaren arabera artea onena dena bilatzen duen eginkizuna baita, eta definizio hori kontuan hartuta, berriro erretorikari arte izatearen aukera kentzen dio, erretorikak plazera bilatzen duelako, baina ona denari kasu gabe⁶⁰.

Aristotelesek pasarte horretako definizioarekin erretorikari arteen artean leku bat ziurtatzen zion, eta, gainera, dialektikaren estatusa ematen zion, hots, filosofia egiteko erabiltzen zen tresna ospetsuaren estatusa. Horrela, Aristotelesek erretorika bai hiritarrentzat bai estatuarentzat erabilgarria zela onartzen zuen.

2.1.2. Erretorikaren helburua betetzeko, konbentzitzeko balio duena teorizatu egin behar da. Horretarako, Aristotelesek ohiko lan prozedura erabili zuen, eta bere garaian zeuden *Arte erretorikoak* bildu eta aztertu zituen⁶¹, hurrengo testu honetan ikusten dugun bezala:

(3) «Dena den, gaur egun diskurtsoaren arteak osatzen dituztenek ez dute hornitu, nolabait esateko, arte erretorikoaren zati bakar bat ere (zere-*ren* eta *pisteis* soilik baitira arte barrukoak eta gainontzekoa soberan baitago), eta ez dute ezer esaten entimemei buruz, zeintzuk pertsuasioaren gorputza diren, baizik eta gehienetan gaiak kanpo dagoenaz arduratzen dira: hain zuzen ere, kalumnia, eta errukia, sumindura eta arimaren antzeko ‘pasioak’ ez baitira gaiari buruzkoak, baizik eta epaileari dagozkionak» (1354.a.11 t. hur.)⁶².

⁵⁶ 462.c. t. hur.

⁵⁷ 468.c-e.

⁵⁸ 465.a.

⁵⁹ 465.a.3 eta 466.c-d.

⁶⁰ 501.b.1-c.5.

⁶¹ Ik. Zizeron, *De inventione* II 2 eta *De oratore* II 38, 160, non esaten den Aristotelesek arte horiek bildu eta laburtu egin zituela galdu den lan batean, *Technôn sunagogé*.

⁶² νῦν μὲν οὖν οἱ τὰς τέχνας τῶν λόγων συντιθέντες οὐδὲν ὡς εἰπεῖν πεπορίκασιν αὐτῆς μόριον (αἱ γὰρ πίστεις ἔντεχνόν εἰσι μόνον, τὰ δ' ἄλλα προσθήκαι), οἱ δὲ περὶ μὲν ἐνθυμημάτων οὐδὲν λέγουσιν, ὅπερ ἐστὶ σῶμα τῆς πίστεως, περὶ δὲ τῶν ἔξω τοῦ πράγματος τὰ πλείστα

Lerro horietan garaiko *Arteen* kritika egiten du Aristotelesek, bi puntutan oinarrituta: alde batetik, tratatu horiek ez daukate baliorik erretorikari dagozkion baliabideez aritzen ez direlako. Erretorikari dagozkion baliabide horiek dira soilik *písteis*: hitz horrek, singularrean (*pístis*) pertsuasio subjektiboa adierazten du, eta aditz moduan (*pisteúein*) «pertsuaditu» edo «konbentzitu»⁶³ esan nahi du; pluralean erabiltzen denean, konbentzitzeko baliabideak adierazten ditu⁶⁴. Hain zuzen ere, konbentzitzea edo pertsuasioa diskurtsoaren barruan sinesgarria den argudiatze baten bidez lortzen denez, errekurtso horiek, *písteis*, pertsuasioaren bidez gauzatutako «frogak» dira.

Gainera, garaiko arteek ez dituzte entimemak jorratzen eta entimemak pertsuasioaren gorputza dira, hots, diskurtsoaren osagarri nagusia. Hitz horrek, grezieraz, bi hitzek osatuta dago —*en* «barruan» eta *thumós* «arima, izpiritua»—, eta barruko jarduera edo argudio baten barruko garapena adierazten du⁶⁵; jarduera edo garapen hori zertan datzan honako testu honetan argitzen da:

(4) «Arteari dagokion metodoa *frogei* (*písteis*) buruzkoa dela, eta pertsuasioa (*pístis*) nolabaiteko demostrazioa dela nabarmena denez (zeren batez ere konbentzitzen (*pisteúomen*) baikara zerbait demostratuta dagoela ulertzen dugunean), eta demostrazio erretorikoa entimema denez, eta hori, hitz batean esanda, frogen artean irmoena denez, eta entimema nolabaiteko silogismo bat denez, eta silogismo oroz, batera, dialektikak, bai osoak bai horren zati batek, aritu behar duenez, silogismoa nondik eta nola sortzen den hobeki teoriza dezakeena, entimemetan adituena izango litzatekeela argi dago, baldin eta horrek zeri buruz ari den entimema eta zeintzuk diren horren eta silogismo logikoaren arteko aldeak ulertzen badu. Hain zuzen ere, fakultate berari dagokio, bai egia, bai egiaren antza duena ezagutzea, eta gizakiek, oro har, egiarengana jotzeko berez nahikoa indar dute eta gehienetan lortu egiten dute egia» (1355.a.1 t. hur.)⁶⁶.

Testu horren arabera entimema (a) erretorikan gauzatzen den demostrazioa eta (b) nolabaiteko silogismoa da. Horrela izanik, silogismo guztiak be-

πραγματεύονται· διαβολή γάρ καὶ ἔλεος καὶ ὀργή καὶ τὰ τοιαῦτα πάθη τῆς ψυχῆς οὐ περὶ τοῦ πράγματός ἐστιν, ἀλλὰ πρὸς τὸν δικαστήν.

⁶³ «Pertsuaditu» eta «konbentzitu» arteko desberdintasuna ulertzeko, ik. 96. oh.

⁶⁴ Ik. Racionero, 167, 14. oh. Enpedokleseki eta Gorgiasen erabiltzen zuten *pístis* «testigantza» edo «hutsik gabeko jakinduria» adierazteko, ik. Melero, 1966, 201, 131. oh.

⁶⁵ Ik. Ramírez Trejo, 2002, CXXII, 14. oh., eta CCXXIII, 4. oh. Grezieraz, eta logikaren barruan, izen berbera ematen zaio proposizio bat falta zaion argudiatzeari.

⁶⁶ ἐπεὶ δὲ φανερόν ἐστιν ὅτι ἡ μὲν ἔντεχνος μέθοδος περὶ τὰς πίστεις ἐστίν, ἡ δὲ πίστις ἀπόδειξις τις (τότε γὰρ πιστεύομεν μάλιστα ὅταν ἀποδείχθαι ὑπολάβωμεν), ἔστι δ' ἀπόδειξις ῥητορικὴ ἐνθύμημα, καὶ ἔστι τοῦτο ὡς εἰπεῖν ἀπλῶς κυριώτατον τῶν πίστεων, τὸ δ' ἐνθύμημα συλλογισμὸς τις, περὶ δὲ συλλογισμοῦ ὁμοίως ἀπαντος τῆς διαλεκτικῆς ἐστὶν ἰδεῖν, ἢ αὐτῆς ὅλης ἢ μέρους τινός, δῆλον ὅτι ὁ μάλιστα τοῦτο δυνάμενος θεωρεῖν, ἐκ τίνων καὶ πῶς γίνεται συλλογισμὸς, οὗτος καὶ ἐνθυμηματικὸς ἂν εἴη μάλιστα, προσλαβὼν περὶ ποῖά τέ ἐστι τὸ ἐνθύμημα καὶ τίνας ἔχει διαφορὰς πρὸς τοὺς λογικοὺς συλλογισμοὺς. τὸ τε γὰρ ἀληθές καὶ τὸ ὅμοιον τῷ ἀληθεὶ τῆς αὐτῆς ἐστὶ δυνάμεως ἰδεῖν, ἅμα δὲ καὶ οἱ ἄνθρωποι πρὸς τὸ ἀληθές πεφύκασιν ἰκανῶς καὶ τὰ πλείω τυγχάνουσι τῆς ἀληθείας·

zala, dialektikaren barruan aztertu behar da. Beraz, erretorika dialektikak erabiltzen duen metodo berberaz baliatzen da⁶⁷. Horrek esan nahi du dialektikaren silogismoetan trebatua dena, entimemetan ere aditua izango dela, baina, baldintza batekin: goian (§ 2.1) aipatu dugun bezala, dialektika eta erretorikaren artean nolabaiteko desberdintasuna ere bada: biak argudiatzeari buruz ari dira, baina lehenengoak silogismo logikoen bidez egia argudiatzen du; bigarrenak, aldiz, entimemen bidez egiaren antza duena, litekeena (*eikós*) dena, argudiatzen du⁶⁸. Beraz, biak, dialektika eta erretorika, ez dira ulertzen egiari egindako erreferentzia desagertzen bada⁶⁹, eta testuan gizaki guztiek gehienetan egia lortzen dutela esaten da espresuki⁷⁰. Ideia horietan, Platonen herentzia nabaria da. Hain zuzen ere, Platonek hasiera batean onartzen zuen egia diskurtso erretorikoaren osagarria zela, teoria erretorikoan tradizionala zen bezala, eta horrela idatzi zuen *Sokratesen Apologian* (K. a. 396. urtearen ingurukoa): «epailea eta hizlariaren bertutea egia esatea da»⁷¹. Baina gero egia izatea bera zela⁷² teorizatu zuen eta, horrenbestez, egia bakarrik filosofiaren objektua izan zitekeela eta filosofoek soilik ezagutu ahal izan zutela dialektikaren bidez. Horrela, Platonek egia ez erretorikarekin, baizik eta dialektikarekin lotu zuen. Hori da *Gorgias* (K. a. 387-385) elkarrizketan agertzen den jarrera: Sokratesen eta Poloren arteko eztabaidan, lehenengoak egia eta erretorika argi eta garbi kontrajartzen zituen, bigarrenari honako erantzuna ematen dionean: «erretorikoki ezeztatzen saiatzen zara»⁷³, hots, tribunaletan egiten zen moduan, lekuko asko aurkeztuz egia ezkutatzeko, baina ezeztatze honek ez du balio egiaren aurrean, zeren eta egia «ez da inoiz ezeztatzen»⁷⁴. Horrelako erretorika lantzeak ez zuen merezi, baina Platonek bere hiri edo estatu idealean sartzeko bide bat aurkitu zuen: egia izanik ere edertasunera zientziaren (*epistéme*) bidez bakarrik ailegatzeko dela eta era berean egiara, hots, izate berara, filosofiaren bidez bakarrik iristen dela, dena den, ederrak diren gauzei buruz, alegia, edertasunaren antzekoak diren gauzei buruz, iritzi bat (*dóxa*⁷⁵) eduki daiteke, eta, era berean, hizlaria, egiara iristen ez bada ere,

⁶⁷ Entimema hori, edo silogismo erretorikoa ez da agertzen *Topikoetan* (VIII 11, 162.a.15-18) egiten den silogismoen sailkapenean, baina bai *Lehenengo Analitikoetan* (II 27) eta *Bigarren Analitikoetan* (I 1), non, *Erretorikan* bezala (1357.a.23 t. hur.), probabilitateetatik eta seinaleetatik (ἐξ εἰκότων καὶ ἐκ σημείων) sorturiko silogismoa dela esaten den.

⁶⁸ Ik. Ramírez Trejo, 2002, LII-III: dialektikak litekeenarekin nahikoa badu ere, eta erretorikak egia erakutsi ahal badu ere, onena beti da egiara eta ez famara zuzentzen dena (1364.b.19 eta 1365.b.1-15); bestalde, bai dialektikan bai erretorikan faltsuak diren gauzak argudia daitezke, baina hori ikasi behar da bakarrik halako argudioak ezagutzeko eta ezeztatzen jakiteko (1355.a.29-31).

⁶⁹ Ik. 1354.a.35 t. hur.

⁷⁰ Hain zuzen ere, bai egia, bai litekeena gaitasun (*dúnamis*) berari esker lortzen dira: ik. 1355.a.14. López Eireren hitzetan, 1995, 40: *La retórica es el arte de hacer verosímil lo verdadero*.

⁷¹ 18.a.5-6.

⁷² Ik. *Errepublika* 490.b eta 537.d.

⁷³ 471.e.1 t. hur.

⁷⁴ 473.b.10-11.

⁷⁵ Ik. *Errepublika* 476.d, 478.d. t. hur.

litekeenera, hots, egiaren antza duenera, ailega daiteke; hain zuzen ere, egiaren antza duena iritzi publikoa da, denek komunean daukaten ustea, nondik konbentzitzen duen hori sortzen den⁷⁶. Horrela, Platonek erretorika onartzen du, baina ez benetako ikasbidea lortzeko baliabide bezala, baizik eta herria mitoaren bitartez (*muthología*) konbentzitzeko⁷⁷. Azkenik, *Fedro* (K. a. 369) elkarrizketan Platonek egiaren lekua birsartzen du diskurtsoetan, esanez, erretorikaren objektua «litekeena» bada, hori egia barik ez dela ulertzen:

(5) «Esaten da ... hizlari ona izateko ez dela batere beharrezkoa ... justu eta injustuari buruzko egiaz arduratzea, ... zeren eta tribunaletan inori ez baitzaio gauza horiei buruzko egia batere interesatzen, baizik eta pertsuasiboa dena. Hori litekeena (*eikós*) da, eta hori landu behar du artearen barruan hitz egin behar duenak»⁷⁸ ... «litekeena, hain zuzen ere, egiaren antza duelako sortzen da jendearengan, eta antzekotasunak ... egia ezagutzen duenak aurkitzen ditu hobe»⁷⁹.

Aristotelesek azken Platon horren ideia sartzen du bere teorian, egiazkoak eta onenak diren gauzak berez, bai inferentziak egiteko, bai konbentzitzeko hobeak direla gehitzen duelarik⁸⁰.

2.1.3. Konbentzitzeko, «frogak»(*písteis*) erabili behar dira, eta horiek bi motakoak dira: arte erretorikoari dagozkionak (*éntechnoi*) eta arte horretatik kanpo daudenak (*átechnoi*):

(6) «Guk hornitzen ez ditugunei artetik kanpokoak (*átechnoi*) deitzen diet, aldez aurretik existitzen baitira, hala nola lekukoak, torturapean lortutako aitopenak, dokumentuak eta antzeko «froga» guztiak; eta guk geuk presta ditzakegunei metodo baten bidez, erretorikari dagozkionak (*éntechnoi*); lehenengoak erabili, bigarrenak bilatu egin behar dira» (1355.b.35 t. hur.)⁸¹.

Hemen erretorikari dagokion eginkizuna zehazten da: metodo baten bidez hizlariak berak egoera bakoitzean konbentzitzeko balioko duten «frogak» sortu behar ditu. Baina ¿non bilatu horrelako «frogak»?

(7) «Diskurtsoaren bidez eskura daitezkeen «frogen» artean hiru mota daude: «froga» batzuk hitz egiten duenaren izaeran dautza; beste batzuk,

⁷⁶ Ik. *Fedro* 260.a.

⁷⁷ Ik. *Politikoa* 304.c.10-d.3.

⁷⁸ 272.d.1 t. hur.

⁷⁹ 273.d.3 t. hur.

⁸⁰ 1355.a.35-37. Horrela izanik, erretorika baliagarria da, zeren eta egia dena eta justua dena, berez, kontrakoak baino hobeak baitira: 1355.a.21.

⁸¹ τῶν δὲ πίστειν αἱ μὲν ἀτεχνοὶ εἰσιν αἱ δ' ἐντεχνοὶ. ἀτεχνα δὲ λέγω ὅσα μὴ δι' ἡμῶν πεπóρισται ἀλλὰ προὔπηρχειν, οἷον μάρτυρες βάσανοι συγγραφαὶ καὶ ὅσα τοιαῦτα, ἐντεχνα δὲ ὅσα διὰ τῆς μεθόδου καὶ δι' ἡμῶν κατασκευασθῆναι δυνατόν, ὥστε δεῖ τούτων τοῖς μὲν χρῆσασθαι, τὰ δὲ εὐρεῖν.

entzulea aldarte zehaztu batean jartzekoan; beste batzuk diskurtsoan bertan, frogatzen duen edo frogatzen saiatzen den horretatik (1356.a.1 hur)»⁸².

Diskurtso bat enuntziatu batzuek osatzen dute eta pasarte horretan enuntziatu horiek nondik sortu behar diren esaten zaigu. Eta sortu behar dira komunikazioan parte hartzen duten hiru faktoreetatik, igorlearengandik (*êthos*), hartzailearengandik («entzulea aldarte zehaztu batean jartzekoan»= *páthos*) eta mezutik bertatik (*lógos*).

Hizlariaren *êthos*-aren bidez lortutako pertsuasioa erretorikaren baliabide tradizionala zen. Iturri erretoriko desberdinetan esanahi honekin agertzen da: hizlariak, diskurtsoa egin baino lehen, entzute ona edo txarra dauka entzuleriaren baitan; fama hori ona bada, hots, jendeak pentsatzen badu moralaren aldetik izaera edo *êthos* ona daukala, errazago konbentzituko du, zeren eta bere interesari begira ez dela ari eta maltzurkeriarik gabe hitz egiten duela alde aurretik onartuko baita⁸³. *Êthos*-ari buruzko ideia hori gero erretorika latindarrean ere erabiliko da, *auctoritas* hitz teknikoaz izendatuta⁸⁴. Aristotelesek jaso zuen ideia hori, baina aldatu egin zuen: bere *Erretorikan*, *êthos*-a enuntziatu pertsuasiboak lortzeko iturri bat da, eta horrek esan nahi du hizlariak, sinesgarria dela erakusteko eta adierazteko, errekurso erretorikoak erabili behar dituela, alegia, *léxis ethiké* edo «hizkera etikoa» erabiltzen jakin behar duela. Hain zuzen ere, hizkera horren bidez hizlariak diskurtsoan bertan behar den aztura (*héxis, habitus*) duela erakutsiko du, eta era horretan lortutako pertsuasio mota diskurtsoaren ondorioa izango da, eta ez entzuleriak berari buruz diskurtsoa egin baino lehen zeukan iritziarena⁸⁵.

Entzulearengan pasioak (*páthe*) sortzea ere baliabide tradizionala zen. Besteen artei kritika egiten zienean⁸⁶, Aristotelesek errekurso hori aipatu eta arbuiatu egiten zuen, pasioak ez zirela «gaiari buruzkoak, baizik eta epaileari dagozkionak» esaten zuelarik. Han zioena, azken testu horretan ikusita koari eta bigarren liburuan pasioak nola erabili erakusten duten pasarteei kontrajartzen zaie. Kontraesan hori bi eratara azaltzen da:

- (3) Testuan Aristotelesek arbuiatzen ditu pasioak, Platonek egiten zuen bezala⁸⁷. Pasarte hori lehenengo erredakziokoa izango zen eta

⁸² τῶν δὲ διὰ τοῦ λόγου ποριζομένων πίστειων τρία εἶδη ἔστιν· αἱ μὲν γὰρ εἰσιν ἐν τῷ ἦθει τοῦ λέγοντος, αἱ δὲ ἐν τῷ τὸν ἀκροατὴν διαθεῖναι πῶς, αἱ δὲ ἐν αὐτῷ τῷ λόγῳ διὰ τοῦ δεικνύναι ἢ φαίνεσθαι δεικνύναι.

⁸³ Ik. Isokratesen *Antidosis*, § 278-80, *Alexandrorentzako Erretorika*, § 38 eta Platonen *Gorgias* 513.b.7 t. hur. Gorgiasen eskolako sofistizat, aldiz, konbentzitzeko garrantzi handiena zeukana, estiloak ematen zituen errekursoak ziren, moralala alde batera utzita.

⁸⁴ Ik. Lausberg, 1966, § 327.

⁸⁵ Ik. 1356.a.4 t. hur. eta 1366.a.29.

⁸⁶ Ik. goiko (3) testua.

⁸⁷ Ik. *Apologia* 34 b.6 t. hur., non gaitik kanpoko pasioak arbuiatzen diren Sokratesen epaikeitaren harira, eta *Gorgias* 503.a, non herriaren gaineko koipekeria eta demagogia salatzen den; halaber ik. § 2.2.2.

Aristoteles oraindik Platonen teoriatik hurbil egongo zen. Bestalde, Isokratesen erretorika psikologikoari egindako erreferentzia bat izan zitekeen arbuatze hori.

- Baina pasarte horretan garbi geratzen da pasioak aipatzen direla diskurtso judizialaren haritik eta, dakigunez, horrelako diskurtsoetan oso normala zen gaitik kanpo zeuden errekurtsio sentimentalak erabiltzea. Denek gogoan zeukaten oraindik Sokratesen epaiketa eta han gertatutakoa: Sokratesek, guztien gomendioei kasurik egin gabe, horrelako errekurtsioak erabiltzeari uko egin zion eta heriotza zigorra jaso zuen. Hori kontuan hartuta, Aristotelesek pasarte horretan gaiak kanpoko pasioak bakarrik arbuatzen zituela pentsa daiteke, baina lehenengo erredez horretatik bere ikuspuntu propioa pasioei buruz bazeukala, hots, hasieratik pasioak konbentzitzeko baliabideen artean onartzen zituela, eranskin moduan bazen ere, entzuleek logika hutsez osatutako diskurtsoak ulertzeko ahalmen falta zeukatelako⁸⁸, nahiz eta konbentzitzeko garrantzitsuena zena, entimema, azaltzen zuenean ez aipatu. Geroxeago Aristoteles, bere teoriaren barruko garapenaren bitartez, pasioa *pístitis* edo entimemen artean sartzeraz⁸⁹ iritsiko zen. Bi azalpenetan, *Erretorikaren* lehenengo erredakzioaren aztarna izango zen testu hori.

Hirugarren «froga» mota sortzen da «egia edo hala dirudiena erakusten dugunean»⁹⁰, edota diskurtsoaren gaia frogatzen dugunean. Errekurtso horren bidez lortutako enuntziatuak gaiari edo diskurtsoaren edukari (*lógos*) dagozkionak izango dira.

Hiru «froga» mota horiek silogismoen bidez arrazoitzeko ahalmena daukanak, eta izaerei buruz, bertuteei buruz eta pasioei buruzko ezaguera teorikoa daukanak erraz lortuko ditu. Horrela izanik, erretorikaren bigarren definizio bat ematen zaigu, zeinaren arabera «nolabaiteko aldaxkaren antzekoa»⁹¹ den, alde batetik dialektikarena, eta bestetik «izaerei buruzko jakintza praktikoa batena, zeinari politika deitzea zilegi baita»⁹².

Erretorika aldaxka delako metaforarekin Aristotelesek oso garbi uzten du erretorikak dialektikarekin eta politikarekin daukan harremana: alde batetik, adierazten du erretorika natura berekoa dela; baina, bestetik, independentea dela. Politikarekiko hemen agertzen den harremana zehazteko, esan behar da Aristotelesen lanetan politika eta etika askotan agertzen direla edo identifikatuta edo koordinatuta, zeren eta biek osatzen dute berak «giza bizitzaren

⁸⁸ 1355.a.25 eta 1357.a.3.

⁸⁹ Ik. Racionero, 1990, 163, 7. oh.

⁹⁰ ὅταν ἀληθές ἢ φαινόμενον δείξωμεν, (1356a.19-20).

⁹¹ οἷον παραφύς τι, 1356.a.25-26.

⁹² ὥστε συμβαίνει τὴν ῥητορικὴν οἷον παραφύς τι τῆς διαλεκτικῆς εἶναι καὶ τῆς περὶ τὰ ἦθη πραγματείας, ἣν δίκαιόν ἐστι προσαγορεύειν πολιτικὴν, 1356.a.25-27.

filosofia» deitzen duena⁹³; beraz, politika esaten duenean, etikarekiko harremana ere ematen da. Hain zuzen ere, pasarte horretan politika gizakien izaeraz (*êthos*) arduratzen dela adierazteko agertzen da. Horrela izanik, Aristotelesek filosofia praktikoaren jakintzeekin, hots, dialektika, etika eta politikarekin, espresuki erlazionatzen du erretorika⁹⁴.

2.1.4. «Frogak» osatuko dituzten enuntziatuak nondik aterako diren esanda, erretorikaren eskema logikoa zehazten du Aristotelesek: gauza bat frogatzeko, dialektikan indukzioa eta silogismoa (benetakoa zein itxurazkoa⁹⁵) erabiltzen badira, erretorikan ere pareko baliabideak daude: «eredua», indukzio mota bat, eta entimema, silogismo mota bat⁹⁶. Horien arteko desberdintasuna ezagutzeko, Aristotelesek *Topikoetara*⁹⁷ bidaltzen gaitu eta han agertzen dena laburbiltzen du: gauza bat demostratzen bada antzeko kasu asko erabilia, *Topikoetan* indukzio bat da; erretorikan, aldiz, «eredu» bat. Premisa zehatz batzuetatik zerbait desberdina lortzea *Topikoetan* silogismo bat bada, *Erretorikan* entimema bat. Prozedura logiko biak konbentzitzeko erabiltzen dira, baina Aristotelesen iritziz entimemetan oinarritutakoak, *ereduetan* oinarritutakoak baino txalotuagoak izaten dira⁹⁸. Hasiara batean entimemak bakarrik aipatzen badira⁹⁹, gero dialektika eta erretorikaren arteko parekotasuna handitzen da, arraznamendu induktiboa, hots, «eredua», gaineratuz. Horrela, Aristotelesek sartzen du erretorikan ikasteko dauden bi prozedurak¹⁰⁰, baina horien bitartez arrazoizko iritzia eta ez egia mugiezina lortzen da. Bi errekurtso horiek erabili behar dira masen artean hitz egiteko, zeren eta jende gehiena ez baitago prestatuta arraznamendu luze baten bidez lortutako ondorioak ulertzeko¹⁰¹.

⁹³ Ik. *Nikomarentzako Etika* 1095.a.13,15; 1102.a.12 eta 1181.b.15; *Etika Handia* 1181.b.27 eta Guthrie, 1981, 343-346. Tovarren ustez, 1990, 83, 21. oh., pasarte horretan Aristotelesek Isokratesi zuzentzen dio eraso bat, zeren eta azken horrek erretorika, besterik ez zuen irakasten, baina filosofia eta politika erakusten zuelako itxura egiten zuen.

⁹⁴ La Nouvelle Rhétorique deituriko egungo korrontearen arabera ere, erretorika argudiatzeko teoria bat da, dialektikaren arma bat; hain zuzen ere, Aristotelesen eragina korrante horretan nabaria da; ik. López Eire, 1995, 72, 105 eta, orokorrean, II. Kapituluua.

⁹⁵ Silogismo hori *Topikoetan*, 100.b.25, silogismo eristikoen artean aipatzen da: bertan agertzen diren premisak itxuraz soilik dira benetakoak; ik. Tovar, 1990, 83, 18. oh.

⁹⁶ 1356.a.34 t. hur. Demostrazioak dialektikaren barruan egiten dira; horiek ezagutza zientifikoa handitzen dute eta zientzia zehatz batean adituak direnen artean gauzatzen dira. Erretorikan egiten den argudiatzea, aldiz, orokorrean onartuta dauden printzipioetan oinarritzen da, zeren eta horiek bakarrik baitira erabilgarriak masen artean: ik. 1355.a.26 ss. Gaur egun *Nouvelle Rhétorique* korrantean desberdintzen dira *Logika formalis* eta *Logika informalis*: lehenengoa *demostrazioaren* Logika da, bigarrena, *argudiatzearena*, edo erretorikaren eremua: lehenengoak «konbentzitu» egiten du, bigarrenak «pertsuaditu»: ik. López Eire, 1995, 81 eta 85.

⁹⁷ Egiten den erreferentzia izan daiteke 100.a.18-24 eta 105.a.10-14, ik. Racionero, 1990, 180, 41 oh.

⁹⁸ 1356.b.11 t. hur.

⁹⁹ Ik. (3) eta (4) testuak.

¹⁰⁰ Ik. *Bigarren Analitikoak*, 81.a.40: «indukzioaren bidez edo demostrazioaren bidez ikasten dugu».

¹⁰¹ Ik. 1357.a.3.

Erretorika iritzi eta usteen eremuan ari da: hain zuzen ere, diskurtsoak egiten dira era batekoak edo besteakoak izan daitezkeen arazoei buruz¹⁰²; beraz, entimema eta «eredua» bestelakoak izan daitezkeen gauzei buruz ari dira eta horien bitartez ezaguera eztabaidagarrien arteko ebidentziak lortzen saiatzen da. Hori dela eta, entimemetan erabiltzen ditugun proposizioak batzuetan beharrezkoak dira, baina gehienetan, sarri gertatutakoak baino ez dira, «probabilitate» eta «seinaleetatik» abiatuz osatuak¹⁰³. «Probablea» edo litekeena (*eikós*) «gehienetan gertatzen dena da, baina ez absolutuki batzuek definitzen duten legez, baizik eta beste era batekoak izatea onartzen duten gauzei buruz ari dena, gauza horiek litekeenarekin, osoak partearekin daukan harreman berbera baldin badaukate.»¹⁰⁴. «Probabilitatea», beraz, ekintza bat suertatzen den maiztasunean oinarritzen da.

«Seinalea» (*seméion*) bi gertakizunen arteko harremana adierazteko erabiltzen da; bi gertakizun horien arteko harremana beharrezkoa bada, argudio eztabaidaezina (*tekmeríon*) deitzen da. «Seinale» horrek, osoak partearekin daukan harreman berbera dauka; eman dezagun, gaixorik egotearen seinalea, sukarra edukitzea dela; bi ekintza horien arteko erlazioa beharrezkoa denez, seinale hori argudio eztabaidaezina da. Baina arnasestuka egotea gaixorik egotearen seinale dela esaten bada, ekintza horien arteko harremana ez da beharrezkoa, zeren eta arnasestuka beste kausa batzuek eraginda ere egon baitaiteke, eta orduan erlazio horren ondorioak «probabilitatea» bakarrik adierazten du.

Ikus daitekeenez, bai «probabilitateak», bai «seinaleak» probabilitate errealean aldaerak adierazten ditu, lehenengoak gertaera baten probabilitatea, bigarrenak erlazio batena¹⁰⁵.

«Eredua», bestalde, antzekoak antzekoarekin daukan harremanaz ari da¹⁰⁶. Erabiltzen da bi proposizio daudenean, genero berekoak, baina bata bestea baino ezagunagoa denean. Eman dezagun, denok dakigula tirano izan ziren guztiek guardia bat eskatu zutela tirano izan nahi zutenean; horrela, esaten bada «Dionisiok eskatu du guardia bat, beraz, tiranoa izan nahi du», hori «eredu» bat da.

2.1.5. Erretorikaren eskema logikoa ikusi eta gero, «frogak» zerez osatuta dauden azaltzen du Aristotelesekin. Dakigunez, diskurtso bat egiteko, enuntziatuak eduki behar dira¹⁰⁷, eta erretorikari dagozkion enuntziatuak «fro-

¹⁰² Ik. 1357.a.4.

¹⁰³ 1357.a.30 t. hur.

¹⁰⁴ τὸ μὲν γὰρ εἰκὸς ἐστὶ τὸ ὡς ἐπὶ τὸ πολὺ γινόμενον, οὐχ ἀπλῶς δὲ καθάπερ ὀρίζονται τινας, ἀλλὰ τὸ περὶ τὰ ἐνδεχόμενα ἄλλως ἔχειν, οὕτως ἔχον πρὸς ἐκεῖνο πρὸς ὃ εἰκὸς ὡς τὸ καθόλου πρὸς τὸ κατὰ μέρος. (1357.a.34).

¹⁰⁵ Ik. Racionero, 1990, 186, 59. oh.

¹⁰⁶ 1357.b.26 t. hur.

¹⁰⁷ 1359.a.6 t. hur.

ga» eztabaidaezinak (*tekméria*) dira, «litezkeenak» direnak (*eikóta*) eta «seinaleak» (*semeía*)¹⁰⁸; hain zuzen ere, silogismo oro enuntziatuetatik abiatuta osatzen da, eta entimema aipatutako enuntziatuez osatuta dagoen silogismoa da¹⁰⁹. Bai silogismo erretorikoetan bai dialektikotan, topikoak erabiltzen ditugu.

Tópos hitzak grezieraz «leku» esan nahi du, eta leku bat edo espazio bat, non hizlariak memorian gordeta dituen datuen artean pertsuasiorako baliabideak bila ditzakeen, adierazten du metaforikoki; baliabide horiek materia desberdinetara aplikatzen diren printzipioak dira. Aristotelesek definitzen ez badu ere¹¹⁰, *tópos*-a, metodo bat da zeinaren arabera kasu zehaztu bati dagozkion argudioak erregela logiko batzuen bidez aukeratzen baititugu; topikoak erlazio erregela orokorrak dira, enuntziatuen arteko erlazio partikularrak baliagarriak direla demostratzeko balio dutenak¹¹¹.

Topikoen artean sailkapen bat dago: batzuk komunak dira, zeren eta orokorrean onartutako proposizioak baitira, eta edozein gairi buruz erabil baitaitezke. Diskurtso guztien osagai diren enuntziatuak, ahal dena eta ez denari buruz, edota gertatutakoari eta gertatu ez denari buruz, edota gertatuko denari eta gertatuko ez denari buruz arituko dira. Horrela izanik, hizlari oro izan daitekeen eta izan ez daitekeenaren *tópos*-a erabiltzera behartuta egongo da, edota gauza bat gertatuko dela edo gertatu dela frogatzera¹¹². Gainera, diskurtso baten bidez ez da bakarrik esaten dena frogatzen, baizik eta hori handia edo txikia den ere esaten da; eman dezagun ongiatz edo gaizkiaz ari garela: horiek txikiak edo handiak diren esango dugu eta ea horrelakoak diren berez, edota beste gauza batzuekin alderatuz gaineratuko dugu; beraz, handiari eta txikiari buruzko enuntziatuak ere beharrezkoak dira, baita orokortasunari eta partikularrari dagozkionak ere. Orduan, hizlariak magnitudearen *tópos*-a erabiltzera behartuta egongo dira, zeren eta guztiek gauza batzuk handitu eta beste batzuk murriztu egiten baitituzte, salatu edo defendatu, kontseiluak eman eta goraiatu edo gaitzetsi egiten dutenean, hots, diskurtso mota guztietan.

Beste topiko batzuk, aldiz, materia jakin bati buruz soilik erabiltzeko dira. Ezagutu beharra dago, orduan, erretorikaren barruan dauden generoak, eta bakoitzari dagokion topiko bilduma. Aristotelesen aburuz, gauza guztiak

¹⁰⁸ Bi metodo horiek sofistikoak ziren: ik. Tovar, 1990, XXX.

¹⁰⁹ Ik. Wartellen entimemaren definizioa, 1982, *ad locum: syllogisme dont les premises ne sont que probables ou vraisemblables* (ἐνδοξα, εἰκότα), *ou fondé sur des signes* (σημεῖα, τεκμήρια).

¹¹⁰ Ik. *Topikoak* 101.a.18 t. hur.: argudiatzeko premisak izan daitezke edo lehenengo printzipioak, berez egiazkoak direnak, edo orokorrean onartzen diren iritziak edo usteak, hots, topikoak.

¹¹¹ Ik. Kennedy, 1991, 45 eta Racionero, 1990, 190, 67. oh. Zientzia, aldiz, προτάσεις περὶ ἑκάστου γένους καὶ εἶδος, genero eta espeziei buruzko premisez arduratzen da: Tovar, 1990, XXVII.

¹¹² 1391.b.27.

beren helburuaren arabera¹¹³ definitzen dira eta, erretorikaren kasuan, entzulea da helburua. Beraz, hiru diskurtso mota desberdintzen ditu: entzulea gertatutakoaren epailea bada, diskurtsoa judiziala da; gertatu behar denaren epailea bada, diskurtsoa politikoa edo eztabaidazkoa da, eta, azkenik, hizlariaren trebetasunaren epailea bada, epidiktikoa¹¹⁴. Diskurtso mota horien ezaugarriak honako hauek dira: Eztabaidari dagokiona, aholkua eta disuasioa da; diskurtso judizialari dagokiona salaketa eta defentsa, eta diskurtso epidiktikoari dagokiona, goraipamena eta gaitzespena. Genero bakoitzaren helburua ere desberdina da: eztabaida diskurtsoarena, egokia eta kaltegarria dena; judizialarena, justua eta injustua dena; epidiktikoarena, bikaina (*kalós*) eta lotsagarria dena.

Eztabaida edo diskurtso politikoa¹¹⁵ bost gairi buruz ari da, eta, beraz, hizlariak ondo ezagutu behar ditu, horietatik atera behar baititu bere diskurtsoa osatuko dituzten enuntziatuak: estatuak behar dituen errekurtsoak nola lortu, gerra eta bakea, herriaren defentsa, inportazio eta esportazioak eta legeria. Eztabaidaren helburua zoriona da, eta berau nondik datorren zehazten du Aristotelesek: noblezia, seme-alabak, aberastasuna, fama, ohoreak, osasuna, edertasuna, indarra eta kemena, zahartzaro ona, lagunak, zorte ona eta bertutea edukizetik. Eztabaidaren bidez lortu nahi dena, komenigarria dena eta ona dena da; beraz, aztertzen da, orokorrean, ona dena, eta, atzetik, on partikularrak. Gero, ona eta komenigarria denari buruzko graduak estudiatzen dira, onak diren gauzen artean, zein den aukeratu behar dena jakiteko. Jarraian, gobernu motek eta legeriek pertsuasiorako daukaten garrantzia aztertzen da.

Diskurtso epidiktikoen helburuak¹¹⁶ bertutea eta bizioa, bikaina dena eta lotsagarria dena dira, zeren eta goraipamena edo gaitzespena egiten duenak horiek bilatzen baititu. Bertuteari buruzko ikerketa egiten da, eta goraipamena merezi duten ekintzak aipatzen dira, horiekin batera erabilgarriak diren topikoak azalduz. Horien artean, genero epidiktikoari bereziki dagokion topikoari, anplifikazioa edo handitzeari, ikerketa berezia eskaintzen dio Aristotelesek.

Diskurtso judizialak osatzeko¹¹⁷, alegia, lehenaldian gertatutako salaketez eta defentsaz aritzeko, ezagutu behar dira egindakoaren justizia eta injustizia. Argudiatzean, azken hori nondik sortu den, edo bere kausak aipatu behar dira. Ideia horren kariaz, giza ekintzen sorburuak ikertzen dira, eta bereziki plazera. Gero injustiziaren topikoak azaltzen dira: nolakoak diren injustizia egiten dutenak eta noren kontra ari diren. Ekintza justu eta injustuen artean desberdintzeko lehenengo irizpidea legea da, gero ekintza injus-

¹¹³ *Nikomarentzako Etika* 1115.b.23.

¹¹⁴ 1358.a.4 t. hur.

¹¹⁵ 1359.a.30 t. hur.

¹¹⁶ 1366.a.23 t. hur.

¹¹⁷ 1368.b.1 t. hur.

tuak borondatezkoak diren ala ez; hirugarrenez, egilea ekintzara bultzatu duen asmoa. Gainera idatzita ez dagoen legea bete behar da, eta lege horrek eskatzen duena, berdintasuna edo zuzentasuna da, zeren eta lege ez idatzi horren arabera zuzena dena, lege idatzian justua denaren baliokidea baita. Ekintza injustua neurtzeko baliabideak ematearekin eta erretorikoki nola erabili azaltzearekin bukatzen da atal hori.

Behin arte barruko «frogak» (*éntechmoi*) ikusita, lehenengo liburuaren azken partean artearen kanpoko «frogei» (*átechnoi*: legeei, lekukoei, kontratuei, torturapean lortutako aitopenei, zinei) gain-begirada bat ematen die Aristotelesekin.

2.2. Bigarren liburuan konbentzitzeko baliabide subjektibo edo afektiboak aztertzen dira, hala nola hizlariarengandik (*éthos*) eta entzulearengandik (*páthos*) sortzen direnak. Bi baliabide horiek epaitzen denari buruzko iritzia eratzeko balio dute eta, beraz, argudio erretorikoaren enuntziatuak osatzen dituzte, diskurtsoaren asuntoak (*lógos*-ak) egiten duen neurri berean. Enuntziatu afektibo horiek argudiatze logikoaren premisa bezala erabiltzean Aristotelesekin bere lehenengo erretorikaren eremua zabaldu zuen lanaren batasuna apurtu gabe¹¹⁸.

2.2.1. *Êthos* hitzak hasiera batean esan nahi zuen «ohiko bizilekua», eta askotan animaliena adierazteko erabiltzen zen; baina Hesiodoren ondoren, hots, K. a. VII. mendetik aurrera, pertsonen ohiko jarrera izendatzen du, edo pertsonak besteen aurrean erakusten duten ohiko aldarte, eta hortik dator «izaera», garai klasikoan hitzak zeukan ohiko esanahia. «Izaera» hitzarekin pertsona baten izateko era zentzu zabalean adierazten zen, zeren eta bizitzeko estiloa, ohiturak, jokaerak eta aukera moralak sartzen baitziren¹¹⁹. Erretorikaren barruan, *êthos*-ak sorrarazten duen pertsuasioa, hizlariak fidagarria dirudien neurrian lortzen da¹²⁰. Eta fidagarritasun hori, lehen aipatu dugun bezala (§ 2.1.3), diskurtsoaren bidez lortu behar da, eta ez hizlariaren aurreko fama onaren ondorioz. Hori dela eta, Aristoteles gaur egungo erretorikaren aitzindari bat izan da, zeren eta, berak defendatzen zuen bezala, gaurko diskurtsoak egiteko teknikan hizlariaren fidagarritasuna diskurtsoan bertan erakusten duen horretan eratzen baita.

Aristotelesen ustez konbentzitu nahi duen hizlariak hiru nolakotasun erakutsi behar ditu: *phrónesis*, *areté* eta *eúnoia* (1378a6-19)¹²¹. *Phrónesis*-a, oro-

¹¹⁸ Ik. Racionero, 1990, 308, 4. oh., eta Tovar, 1990, XXX-XXXI: azken horren ustez, horrela Aristotelesekin sofistika eta platonismoaren arteko sintesia lortzen zuen.

¹¹⁹ Ik. Chantraine, 1968, *ad locum*.

¹²⁰ 1356.a.4 t. hur.

¹²¹ *Politikan* ere, 1309.a.33, aipatzen da politikariek ere hiru nolakotasun horiek eduki behar dituztela, desberdintasun txiki batzuekin: *phrónesis*-a agertu beharrean, ekintzak egiteko ahalmena (*dúnamis*) daukagu, eta *eúnoia*-ren lekuan konstituzioarekiko leialtasuna (*philía*) aipatzen da.

korrean, zuhurtzia edo diskrezioa da, edo era xingleago batean esanda, buruz jokatu (lat. *frons, frontis*, bekokia, eta horren atzean dagoena), sen ona izan. Nolakotasun horrek gertaerak aztertzeke eta horiei buruzko ikuspuntu egokia gauzatzeko balio du. Horrexegatik, nolakotasun hori falta denean, hots, *aphrosúne* dagoenean, hizlariak ez dakite diskurtsoaren objektuari buruzko iritzi zuzena (*ouk orthôs doxázousin*) eratzten eta orduan ez dira sinesgarriak. *Phrónesis* beraz, adimen praktikoa da.

Nolakotasun intelektual horrez gain, hizlariak gizaki etiko gisa agertu behar du. *Areté* hizlariaren bertutea da, edo, bestela esanda, bere justizia¹²² edo bere duintasuna¹²³. Nolakotasun horren kontrakoa *mochthería* da, alegia, gaiztakeria edo perbertsio moralak, eta horrek pentsatzen duena ez esatera bultzatzen du hizlaria. Aristotelesek, diskurtsoaren bidez zuhur eta zuzen agertu nahi duen hizlaria bertuteak azaldu dituen pasartera¹²⁴ bidaltzen du. Bertuteak goraiipamen diskurtsoak egiteko atalean azaldu dira, eta horra bidaltzen du Aristotelesek hizlaria, zeren eta halako diskurtsoetan besteak goraiatzeko balio zuten nolakotasun berberak, hizlariak bere buruari buruzko goraiipamen pertsuasiboa egiteko ere baliagarriak baitira.

Leku horretan bertutea, alde batetik, ahalmen (*dúnamis*) bat bezala deskribatzen da, ondasunak sortzeko eta mantentzeko balio duen ahalmena; eta, bestetik, ahalmen onuragarri (*dúnamis euergetiké*)¹²⁵ bezala, denontzako onurak eta onura handiak sortzen dituen. Bertuteari buruzko definizio hori ez dator ados *Nikomakorentzako Etikan* agertzen denarekin, han¹²⁶ espresuki esaten baita bertuteak ez direla, ez pasioak (*páthe*), ez ahalmenak, baizik eta azturak (*héxeis*)¹²⁷, eta bertuteari dagokionean, «erdigune justuaren» doktrina garatzen da. Goraiipamena merezi zuten ekintzak denontzako onurak sortzen dituztenak direla sofisten artean ohiko gaia zen¹²⁸; Platonentzat, eta sofisten kontrako polemikaren barruan¹²⁹, bertutea da, baita ere, onurak ekartzen dituen ahalmena, eta besteentzako erabilgarria dena, baina Platonek bertuteari beste irizpide bat gaineratzen dio: legeari obeditu behar diola. Suposatzen dugu, orduan, Aristotelesek *Erretorikan* ematen duen bertutearen definizioa, garaiko polemikaren barruan kokatu behar dela eta Aristotelesek Platonengandik hartu zuela bertutea ahalmen onuragarriarekin lotzeko ideia eta legearekin bat egon behar zelako irizpidea. Gero, bertuteari buruzko ikuskera ga-

¹²² ἐπιεικείᾳ, 1378.a.12; kontzeptu horri buruz, ik. Melero, 1996, 117. oh.

¹²³ σπουδαίου, 1378.a.16.

¹²⁴ 1366.a.35 t. hur.

¹²⁵ 1366.b.3.

¹²⁶ 1106.a.5 t. hur.

¹²⁷ Wartellek, 1982, *ad locum*, honela itzultzen du *héxis*: *manière d' être, habitus, disposition durable (éthos, aldiz, da: caractère, comportement, habitude)*; Racionerok, 1999, 242, n. 220: *modo de ser*.

¹²⁸ Ik. Racionero, 1999, 242, 220. oh.

¹²⁹ *Gorgias* 474.c t. hur.

ratuko zuen bere etika tratatuetan¹³⁰ eta, horrela, bertutea, justiziaren barruan eta legearekin konforme egotetik, «erdigune justuaren» irizpide pean egotera pasa zen¹³¹.

Bertutea, gaitasun edo ahalmen moduan, zati edo bertute konkretu batzuetan banatzen da; erretorikaren kasuan, hizlariak bere diskurtsoan islatu behar dituenak honako hauek dira: justizia (*dikaioúsune*), ausardia (*andreía*), neurritasuna (*sophrosúne*), handitasuna (*megaloprépeia*), eskuzabaltasuna (*megalopsuchía*), liberaltasuna (*eleutheriotes*), jakinduria (*sophía*) eta, berriz ere, zuhurtzia (*phrónesis*). Horrenbestez, *phrónesis*-a hemen bertutearen zati bat da, eta «adimenari dagokion bertutea» dela esaten da, «zeinaren arabera ongiri eta gaizkiari buruz estabaidatzeko ahalmena lortzen den»¹³². Bertuteen sailkatze hori ulertzen da aipatu testuinguru horretan, non goraipamenak egiteko bertute guztiak aipatzen diren; baina, hizlariaren ahalmen pertsuasiiboak aipatzen diren testuinguruan, era berezian azpimarratuta agertzen da *phrónesis*-a, alegia, *areté* beraren ondoan kokatuta, eta hori hizlariak nolakotasun etiko edo moralez gain intelektualak ere islatu behar dituela argitzeaz- rren.

Azkenik, *eúnoia*-k borondate ona edo jarrera ona adierazten du, eta ideia hau *philía*-k adierazten duenarekin elkartuta agertzen da, azken hori adiskidetasun harremana edo sexuala ez den amodioa delarik. Bertute horren arabera, hizlariak bere entzuleriarekiko erakutsi behar duen jarrera¹³³ azaltzen da. Horri buruz gehiago jakiteko, Aristotelesek bidaltzen du pasioak (*páthe*) estudiatzen dituen pasartera, han zehaztasun gehiago ematen baititu.

Esandakoaren arabera, hizlariarengandik datorren fidagarritasuna (= *êthos*) diskurtsoan bertan gauzatzen da era egoki batean aipatutako nolakotasun moral eta intelektualak islatzen jakitean¹³⁴. Aristotelesek nolakotasun horien ezaugarriak azaltzen ditu, baina ez du aipatzen nola agertu behar du-

¹³⁰ *Nikomarentzako Etika*, V. liburua, eta *Eudemorentzako Etika*, IV. liburua.

¹³¹ Dena den «bertute ekoizlearen» (*poietikè areté*) ideia aurkitzen da goraipamen teorian bai *Nikomarentzako Etikan* (1101.b.13-15) bai *Eudemorentzako Etikan* (1219.b.9-16). Horrela izanik, Racionerok, 1990, 242, 220. oh., pentsatzen du (1) atal honetan bertuteari buruzko irizpidea Akademiakoa zela, (2) irizpide hori goraipamen esanahiari buruzko polemika antiisokratikoaren mui- na zela eta (3) bertutearen analisisa azalpen psikologiko gisa garatzen denean, goraipamenari bu- ruzko doktrinaren inguru soziologikoak aldatetarik gabe jarraitu zuela Aristotelesen obra osoan zehar.

¹³² 1366.b.18 t. hur.

¹³³ Beraz, jarrera hori desberdintzen da *eúnoia* tradizioaletik, hots, hizlariak diskurtsoaren sar- reran bere buruaren alde entzuleriarengandik eskatzen zuenetik. Wissek, 1989, 30, gaurko ikus- punturako *eúnoia* eskatzea, *areté* eskatu eta gero, sobran dagoela zehazten du, *eúnoia aretéren* ba- rruan dagoela suposatzen delako. Baina ez zen horrela greziarren ikuspunturako, zeinaren arabera lagunekin ona, baina etsaiekin gaiztoa izan behar zen. *Philíari* buruz, ik. § 2.2.2, (8) testua.

¹³⁴ *Êthos* hori, beraz, desberdintzen da *Nikomarentzako Etikan* eta *Poetikari* agertzen denetik, zeren eta azken hori horretan agertzen dena, bai positiboak, bai negatiboak diren nolakotasunez osatuta baitago, baina ez baitu eskatzen nolakotasun intelektualik; ik. Wisse, 1989, 30-31.

ten erretorikoki¹³⁵, zeren eta diskurtso desberdinen egoera zehatzetara moldatuta agertu behar baitira.

2.2.2. Erretorikari dagokion hirugarren errekurtsua pertsuasioa lortzeko «entzulea era konkretu batean jartzean» (*diathēinaí pos*)¹³⁶ datza, eta hori entzulea «diskurtsoaren bidez *pasiōra* (*eis páthos*) bultzatzen denean»¹³⁷ lortzen da. Baliabide hori erabili behar da zeren eta gauza bati buruz ez baitaukagu iritzi bera *pasio* (*páthos*) baten edo beste baten pean gaudenean, adibidez, adiskidetasun harremanaren pean (*filoúntes*) edo gorrotoaren pean bagaude (*misoúntes*): horrek esan nahi du *pasioek* epaileen irizpidea alda dezaketela eta, beraz, filosofo praktikoa zen Aristotelesen iritsiz arte erretorikoan sartu behar ziren. Platonek egin zuen legez, baliabide hori arte erretoriko askok lantzen duten bakarra izateaz kexatu egiten da¹³⁸, baina berak *Erretorikan* sartzen du, ez entzuleriari gustua emateko, baizik eta egia denaren alde, edo egia denaren antzekoa denaren alde jartzeko¹³⁹.

Baliabide hori erabiltzen jakiteko *pasio* (*páthe*) desberdinak ezagutu behar dira, eta horiek zehatz-mehatz aztertzen ditu Aristotelesek. *Pasioak* binaka antolatzen dira¹⁴⁰: sumina eta arimaren egoera lasaia, adiskidetasuna eta gorrotoa, beldurra eta arimaren egoera segurua, lotsa eta lotsagabekeria, eskuza-baltasuna edota mesedeak egitera bultzatzen duen arimaren egoera eta ez egitera bultzatzen duena, errukitasuna eta haserrea, inbidia eta emulazioa. Aristotelesek *páthe* izendatzen dituztenak zeintzuk diren kontuan hartuta, esan dezakegu hitz horri ematen zaion itzulpenak, *pasioak*, ez duela erabat adierazten hitz greziarrak zuen esanahia, zeren eta *pasioak* beti arimaren inklinazio oso bizia adierazten baitu, gogoa asaldatzen duena¹⁴¹, eta hemen aipatzen diren *páthe* batzuek, hala nola, arimaren egoera lasaiak eta adiskidetasunak, ez dute horrelako nolakotasunik jasotzen. Beste bi hitz ere erabiliak izan dira *páthe* itzultzeko, «emozioa» eta «sentimendua»¹⁴², baina bi hitz ho-

¹³⁵ Ik., aldiz, *Alejandrentzako Erretorika*, § 29, non konkretuki zer esan behar duen hizlariak esaten den; adibidez, entzuleriak berari buruzko iritzi ona daukala suposatzen badu, bere ekintzen goraiapamen laburra egin behar du, oraingo egoeran ere onura ekarriko duela gaineratuz (§ 29.6-9).

¹³⁶ 1356.a.3.

¹³⁷ 1356.a.13.

¹³⁸ Ik. § 2.1.2.

¹³⁹ 1356.a.13-19.

¹⁴⁰ 1378.a.30-1380.a.5: ὀργή eta πρασιότης, ἡ φιλία edo τὸ φιλεῖν eta ἡ ἔχθρα edo τὸ μισεῖν, ὁ φόβος eta τὸ θάρσος, ἡ αἰσχύνη eta ἡ ἀναισχυντία, τὸ χάρις ἔχειν edo τὸ χαρίζεσθαι eta τὸ ἀχαριστεῖν, τὸ ἔλεος eta τὸ νεμεσᾶν, ὁ φθόνος eta τὸ ζῆλος.

¹⁴¹ Ik. Sarasola, 1996, *ad locum*: *pasioa*= «irrika, grina»; *irrika*= «zerbaitetarako grina edo nahi bizia»; *grina* = «arima joera bizia; arima egoera edo jaidura bortitza, gogoa asaldatzen duena».

¹⁴² «Emozioa» da «ustekabe, alaitasun, beldur eta abarrek eragiten digun barne-sentimendu sakona» eta «sentimendua», «gogo egoera edo jarrera, bihotzondoak edo zirrararen batek eragina», Ik. Sarasola, 1996, *ad locum*.

riek ere *páthe* batzuek adierazten dutena soilik itzultzen dute. Etimologiari kasu egiten badiogu, ikusten dugu grezieraz hitz hori izen bat dela eta «inpresio edo sentsazio bat esperimintatzea» esan nahi duen aditz batetik (*pa-théin*) datorrela; horrenbestez, izenaren esanahia da «baten batek esperimintatzen duena» edo «baten bati gertatzen zaiona»; horrela izanik, izen hori testuinguru horretan agertzen diren *páthe* guztiak ondo itzultzeko «arima-egoera» edo «esperimintatzen dena» esan nahi du¹⁴³. Dena den, tradizioari men eginez, eta erosotasunagatik, «pasio» hitza erabiltzen dugu lan honetan.

Páthe horiek estudiatzeko, metodo berdina erabiltzen da beti: lehenengoz definizio bat ematen da, eta pasio bakoitza hiru ikuspuntutatik azaltzen da: nola sentitzen diren pasio baten pean daudenak, nortzuk diren pasioak sentitzen dituztenak eta noren kontra edo alde sentitzen diren. Tratamendu hau nolakoa den ikusteko pasio bat, adiskidetasunaren definizioa, hain zuzen ere, ikusiko dugu:

(8) «Izan bedi maitatzea norbaitentzat onak kontsideratzen diren gauzak desiratzeko borondatea, norbait hori eta ez norberaren burua kontuan hartuta, eta gauza horiek ahal den neurrian praktikan jartzea. Laguna maitatzen duena da, eta aldi berean maitatua den horren maitasuna jasotzen duena. Eta pentsatzen dugu lagunak direla bata bestearekin halako egoeran daudela uste dutenak. Gauza horiek oinarrizatz hartuta, norbaiten gauza onekin pozten dena eta zorigaitzekin tristatzen dena laguna izatea beharrezkoa da, norbait hori eta ez beste inor kontuan hartzen bada. Hain zuzen ere, denak pozten dira nahi dituzten gauzak gertatzen direnean, baita tristatu ere kontrakoak gertatzen badira eta, horrela izanik, bai zorigaitzak bai plazerak, borondatearen seinaleak dira. Horrenbestez, lagunak dira, alde batetik, gauza berberak ontzat edo gaiztotzat dauzkatenak eta, bestalde, pertsona berberak laguntzat edo etsaitzat dauzkatenak, zeren eta beharrezkoa baita lagunentzat nahi izatea nork bere buruarentzat nahi duena, eta, horrenbestez, bere buruarentzat nahi duen berbera beste batentzat ere nahi duenak beste horren laguna dela erakusten du» (1380.b.36 t. hur.)¹⁴⁴.

Itzuli dugu «desiratzeko borondatea» zeren eta grezieraz erabiltzen den hitzak (*boúlesthai*) borondate arrazionalak parte hartzen duela adierazten du. Beraz, deinizioaren hasieratik Aristotelesen *pasioei* buruzko ideiak Platonen ikuspuntuarekin zer ikusirik ez duela ikusten da. Platonen arabera, giza ari-

¹⁴³ Ik. Wartellen definizioan, 1982, *ad locum: ce qu'on éprouve, ce qu'on subit, affection, passion.*

¹⁴⁴ ἔστω δὴ τὸ φιλεῖν τὸ βούλεσθαι τινὶ ἃ οἶεται ἀγαθὰ, ἐκείνου ἕνεκα ἀλλὰ μὴ αὐτοῦ, καὶ τὸ κατὰ δύναμιν πρακτικὸν εἶναι τούτων. φίλος δὲ ἐστὶν ὁ φιλῶν καὶ ἀντιφιλούμενος· οἴονται δὲ φίλοι εἶναι οἱ οὕτως ἔχειν οἰόμενοι πρὸς ἀλλήλους. τούτων δὲ ὑποκειμένων ἀνάγκη φίλον εἶναι τὸν συνηθόμενον τοῖς ἀγαθοῖς καὶ συναλοῦντα τοῖς λυπηροῖς μὴ διὰ τι ἕτερον ἀλλὰ δι' ἐκείνον· γιγνομένων γὰρ ὧν βούλονται χαίρουσιν πάντες, τῶν ἐναντίων δὲ λυποῦνται, ὥστε τῆς βουλήσεως σημείον αἱ λῦται καὶ αἱ ἡδοναί. καὶ οἷς δὴ ταῦτ' ἀγαθὰ καὶ κακὰ, καὶ οἱ τοῖς αὐτοῖς φίλοι καὶ οἱ τοῖς αὐτοῖς ἐχθροί· ταῦτ' ἀγαθὰ γὰρ τούτοις βούλεσθαι ἀνάγκη, ὥστε ἄπερ αὐτῶ καὶ ἄλλω βουλόμενος τούτῳ φαίνεται φίλος εἶναι.

mak bi zati¹⁴⁵ zituen, bata arrazionala zena eta bestea arrazoi gabekoa. Gertakizun zehatz baten aurrean, eman dezagun, seme baten edo maite dugun pertsona baten heriotzaren aurrean, lehenengo parteak, onena denak, legeari eta arrazoiari obeditzera bultzatzen gaitu, eta horiek lasaitasuna eta mina ez sentitzea gomendatzen digute. Beste parteak, berriz, ezbeharrak gogoratzen digu eta kexatzera bultzatzen gaitu: zati hori arrazoi-gabekoa da, axolagabea eta koldarkeriaren laguna. Hortaz, arima zati horrek sortzen dituen *pasioak* alterazio kaltegarritzat hartzen dira eta ahal den neurrian horiek saihestea gomendagarria da. Arrazonamendu horren ondorioz, Platonek poesia arbuiaitzen du: arima arrazionala da, hain zuzen ere, poetek bere lanetan imitatzen dutena, aldakorra baita, eta, horrenbestez, teatroa joaten den jendearen gustukoa¹⁴⁶. Eta, horrela izanik, poetek hiri edo estatu idealetik kanpo geratu behar dute, zeren eta poesiak, arimaren zati irrazionala indartzen duen neurrian eta menperatzen duen neurrian, geure buruaren jabe izatea galarazten baitigu eta gure helburutik, hots, hobeak eta zoriontsuagoak izatetik, urruntzen baikaitu¹⁴⁷. Platonek pasioen arbuiaetze hori etikan eta politikan oinarritzen zen: *pasioak* nagusi diren estatuan plazerak eta minak gobernatuko luke eta ez denentzat hobeak diren arrazoiak eta legeak¹⁴⁸.

Aristotelesentzat, aldiz, *pasioak* ez ziren gorputzak sortzen zituen alterazio irrazionalak, atsegingarriak zein mingarriak izan zitezkeenak, baizik eta pentsamendu batek edo ideia batek eragin dakoak, gertakizun baten aurrean egiten dugun balorazioak sortutakoak¹⁴⁹. Goian ikusi dugun testuan, adiskidetasunean borondateak parte hartzen du, eta, orokorrean, pasio bati buruz jendeak duen iritzia («Eta pentsatzen da...») eta *pasioa* bera sentitzen dutenen iritzia («... uste dutenek...») kontuan hartzen da. *Pasioak* pentsamendu edo balorazio baten arabera sortzen badira, behin pentsamendu edo balorazio hori aldatuz gero, *pasioak* ere aldatuko dira eta, horrela, gizakiaren gain daukaten boterea, gizakiak kontrola dezakeena da. Beraz, Aristotelesentzat *pasioek* dimentsio kognitibo eta morala daukate, eta laguntzen digute mun-

¹⁴⁵ Teoria hau *Errepublikaren* X. liburuan agertzen da (603.e.3 t. hur.). IV. liburuan (436 t. hur.), aldiz, arimak hiru zati ditu, λογιστικόν, ἐπιθυμητικόν, θυμοειδές, eta esaten da θυμοειδές-a λογιστικόν-aren aliatua dela. Goian aipatutako pasartean bakarrik aipatzen dira λογιστικόν edo «arrazozkoia» eta ἀλόγιστον edo «arrazoi gabekoa», non bai ἐπιθυμητικόν bai θυμοειδές-a sartzen diren.

¹⁴⁶ *Errepublika*, 606.b.1 t. hur.

¹⁴⁷ *Errepublika*, 606.d.1.

¹⁴⁸ *Errepublika*, 607.a.3-8.

¹⁴⁹ Horregatik *pasio* hauek guztiak arima beti norabide zehatz batera mugitzen dute; Wissek (1989, 67) apuntatzen du horrek *pasioak* desberdintzen dituela epaileek eduki ditzaketan beste eragin batzuetatik, eman dezagun, gertakizun fisiko batetik, hala nola, buruko min batetik, zeren eta azken hori batzuetan lagungarria eta beste batzuetan kaltegarria izan baitaiteke. Egile berberak (1989, 68) hemen ematen diren *pátheen* artean desio (*epithumía*) bat ezta ere aurkitzen ez dela gaineratzen du, baina horiek bai *Nikomakorentzako Etikan* bai *Eudemorentzako Etikan* agertzen direla.

duari buruzko ikuspegi zabala edukitzen; hain zuzen ere, Aristotelesek poetei gomendatzen die bere obretako pertsonaiek sentitzen dituzten *pasioak* alde aurretik sentitzea, lan hobea eta sinesgarriagoa egiteko¹⁵⁰.

2.2.3. Orain arte hizlariak entzulearengan sor ditzakeen *pasioak*, entzule hori bere alde jartzeko, ikusi ditugu. Baina, entzulearen aldetik beste datu bat kontuan hartu behar da: *pasioek* ez daukatela eragin bera entzule guztien gain. Hain zuzen ere, entzuleriaren barruan talde batzuk egin daitezke, nolako kotasun berberak dauzkaten gizabanakoek osatuta daudenak, hala nola, bertute eta bizio berdinak, adin jakin bat eta bizitzan egokitu zaien zorte antzekoa¹⁵¹. *Pasioak* zein bertute eta bizioak lehendik ere ukitu dituen zere, pasarte honetan Aristotelesek, alde batetik, nolakoak diren gazteak, zaharrak eta helduaroan aurkitzen direnak eta, bestetik, nolako ezaugarriak dituzten nobleek, aberatsek, boteretsuek eta zorteonekoek deskribatzen du. Horrela izanik, hizlariak talde horien *êthos*-a ere ezagutu behar du. Hizlariarengandik sortu behar den errekurso konbentzigarri bera izendatzeko *êthos*-a agertzen da berriro hemen, baina orain entzuleen taldeei zuzenduta, kontuan hartuta *êthos* horrek era batera edo bestera pentsatzera eta, beraz, sentitzera bultzatzen dituela¹⁵².

Lehenengo liburua bezala, bigarrena ere topiko batzuen azalpenarekin bukatzen da¹⁵³. Lehenengo aipatzen dira erabat komunak diren lekuak (*topica maior*), posiblea dena eta ezinezkoa dena, gertatutako ekintza eta gertatuko ez dena, anplifikazioa eta murrizketarekin batera. Gero entimemak, maximak horien barruan daudelarik, eta «ereduak» (*topica minor*) aipatzen dira. «Ereduen» artean bi mota daude: lehen gertatutakoa eta norberak asmatutakoa, eta azken horien artean parabolak eta fabulak sartzen dira.

Bigarren liburuaren azken esaldian, lehenengo eta bigarren liburuan aztertutakoaren laburpena egiten da eta hirugarrenean tratatuko denaren berri ematen da:

(9) «Diskurtsoari buruz tratatu behar diren materiak hiru direnez, «ereduei», maxime, entimemei buruzkoa eta, orokorrean, adimenari buruzko argudioak nondik aterako ditugun eta nola ezetatuko ditugun, gauza horiek guztiak esanda geratu dira, baina geratzen zaigu espresio linguistikoa eta egitura azaltzea» (1403.a.34 eta hur.)¹⁵⁴.

¹⁵⁰ Hemen ematen dugun teoria Nussbaumekek defenditzen duena da: ik., bereziki, 1995, 469-487. Idatzi poetikoen πάθος-en esanahiari buruz: ik. Redondo Moyano, 2006.

¹⁵¹ Gaur egun halako deskripzioak egiten dira Psikologia diferentzialaren barruan edota Soziologiaren barruan; ik. López Eire, 1995, 97.

¹⁵² 1388.b.31, t. hur.

¹⁵³ 1392.a.7, t. hur.

¹⁵⁴ ἐπεὶ δὲ τρία ἔστιν ἃ δεῖ πραγματευθῆναι περὶ τὸν λόγον, ὑπὲρ μὲν παραδειγμάτων καὶ γνωμῶν καὶ ἐνθυμημάτων καὶ ὅλων τῶν περὶ τὴν διάνοιαν, ὅθεν τε εὐπορήσομεν καὶ ὡς αὐτὰ λύσομεν, εἰρήσθω ἡμῖν τοσαῦτα, λοιπὸν δὲ διελθεῖν περὶ λέξεως καὶ τάξεως.

Hitz horietan oso garbi geratzen da, bai gaiari, bai *êthos*-ari eta *páthos*-ari dagokien argudiatzea adimenari (*diánoia*) edo pentsamendu arrazionalari dagokiona dela¹⁵⁵, eta hirugarren liburuan tratatuko dena, handik kanpo geratzen dela.

2.3. Logikatik kanpo geratzen den hori, erretorikaren zati bat ere badela garbi uzten du Aristotelesek hirugarren liburuaeren lehenengo hitz hauetan:

(10) «Diskurtsoan aztertu behar diren gauzak hiru direnez gero —lehenengoa, nondik aterako diren frogak; bigarrena, espresioari dagokiona eta hirugarrena nola antolatu behar diren diskurtsoaren zatiak—, frogei buruz esanda dago zenbat iturritatik datozen —zeinak hiru baitira—, eta zeintzuk diren iturri horiek, eta zergatik horiek bakarrik (zeren eta epaitzen duten guztiak, edo pasio bat sentitzen dutelako, edo hitz egiten dutenek nolakotasun batzuk dituztela suposatzen dutelako edota zerbait demostratzen zaielako konbentzituta gelditzen baitira); eta, esanda dago, baita ere, entimemei buruz, nondik lortu behar diren horiek (zeren eta, alde batetik, entimema motak baitaude eta, bestetik, leku komunak); baina *léxis*-ari buruz hitz egin behar dugu, zerren eta zer esan behar den jakitea ez baita nahikoa, baizik eta behar den bezala esatea ere beharrezkoa baita» (1403.b.1 eta hur.)¹⁵⁶.

Pasarte horretan, berriro ere, lehenengo eta bigarren liburuetan egindakoaren berri ematen da, eta liburu horiekin lotzeko egiten da hori, zerren eta iturri batzuen arabera, goian aipatu dugun bezala (§ 1.4), hirugarren liburua bereizirik baitzegoen. Ditugun datuen arabera, zaila da esatea nork batu zituen *Erretorikaren* bi zati horiek, bereziki zer-nolako transmisioa eduki zuten ikusi eta gero, eta horrexegatik iritzi desberdinak daude: batzuek pentsatzen dute Aristotelesek berak egin zuela, bere bizitzaren azken urteetan, Lizeoan irakasten zuenean; beste batzuek, peripatetikoek egin zutela, Aristoteles hil eta gero; eta beste batzuek Androniko dela gaur daukagun osotasunaren erantzulea¹⁵⁷.

Lehenengo bi liburuetan zer esan behar den azaltzen bada, orain nola esan behar den aztertuko da. *Léxis* hitzak, osagarriak diren bi esanahi ditu, espresio linguistikoa eta estiloa. Baina ez da bakarrik hori aztertzen; Diogenesen katalogoan agertzen den moduan, hirugarren liburu hori bi zatitan ba-

¹⁵⁵ *Poetikan* ere horrela esaten da: ik. 1456.a.34 t. hur.

¹⁵⁶ Ἐπειδὴ τρία ἐστὶν ἃ δεῖ πραγματευθῆναι περὶ τὸν λόγον, ἓν μὲν ἐκ τίνων αἱ πίστεις ἔσονται, δεύτερον δὲ περὶ τὴν λέξιν, τρίτον δὲ πῶς χρῆ τάξαι τὰ μέρη τοῦ λόγου, περὶ μὲν τῶν πίστεων εἴρηται, καὶ ἐκ πόσων, ὅτι ἐκ τριῶν εἰσί, καὶ ταῦτα ποῖα, καὶ διὰ τί τοσαῦτα μόνον (ἢ γὰρ τῷ αὐτοῖ τι πεποιθῆναι οἱ κρίνοντες, ἢ τῷ ποιούσ τίνας ὑπολαμβάνειν τοὺς λέγοντας, ἢ τῷ ἀποδεδείχθαι, πείθονται πάντες), εἴρηται δὲ καὶ τὰ ἐνθυμήματα, πόθεν δεῖ πορίζεσθαι (ἔστι γὰρ τὰ μὲν εἶδη τῶν ἐνθυμημάτων, τὰ δὲ τόποι· περὶ δὲ τῆς λέξεως ἐχόμενον ἐστὶν εἰπεῖν· οὐ γὰρ ἀπόχρη τὸ ἔχειν ἃ δεῖ λέγειν, ἀλλ' ἀνάγκη καὶ ταῦτα ὡς δεῖ εἰπεῖν).

¹⁵⁷ Lehenengo bi jarrereri buruz, ik. Racionero, 1990, 477, 1. oh. Hirugarrena Díaz Tejerak defendatzen du, ik. 1988, 724.

natuta aurkitzen da: bata *léxis*-ari buruzkoa (1-12 kapituluak) eta bestea diskurtsoaren egiturari (*táxis, dispositio*) buruzkoa (13-19 kapituluak).

2.3.1. Espresioari (*léxis, elocutio*) buruz ari diren kapituluetan, deklamazioa edo diskurtsoaren antzezpina eta espresio linguistikoa aztertzen dira¹⁵⁸. Azken horren bertute nagusia argitasuna da eta behar den argitasun hori lortzeko, egoerari dagokion (*prépon, aptum*) espresio linguistikoa bilatu behar da¹⁵⁹. *Prépon* edo egoera jakin bati dagokion hizkuntza egokia erabiltzearen beharra Platonen¹⁶⁰ agertzen da lehenengoz: gizon ondraduak, hitz egiten duenean, helburu batekin egiten du, eta horretarako, beste arteetan egiten den bezala, bere materiala ordenatu egiten du, zati bakoitza besteekin era egokian lotzen den (*prépon*) kontuan hartuz orokortasun harmonikoa lortu arte. Aristotelesen arabera, espresio egokia lortuko da diskurtsoa ondo egokitzen bada kontatutako ekintzarekin, eta horrek sorrarazten dituen *pasioekin* eta hizlariaren izaerarekin ados dagoenean¹⁶¹.

Hasteko, hizkuntza egokitasuna lortzeko balio duten prozedura batzuk estudiatzen dira, hala nola, hitzen hautaketa, metaforak, epitetoak eta murritzailak. Kontrakoa ere, hots, egoerari ez dagokion espresioa nondik datorren aztertzen da. Halako espresioa hotza da, antzua, eta antzutasun hori ematen da izen¹⁶² konposatuak, beste hizkuntza bateko hitzak edo ohikoak ez diren hitzak, eta egokiak ez diren epitetoak eta metaforak erabiltzen direnean. Gero konparaketak aztertzen dira, erretorikan oso erabilgarriak ez bada ere, eta askotan metaforaren eta konparaketaren artean bihurtgarritasuna ematen dela erakusten zaigu.

«Helenizatze» edo grezieraz zuzen mintzo egiteko bost gauza dira beharrezkoak: (1) «loturak»¹⁶³ zuzen kokatu; (2) egokiak edo espezifikokoak diren hitzak erabili eta (3) anbiguoak ez direnak; (4) izenetan generoak eta (5) numeroak ondo jokatu.

¹⁵⁸ Egungo *Rhétorique Générale* korronteak ere *elocutio* edo estiloa dauka helburu, edozein lengoaiaren manifestapen artistiko edo literariotan; prozedura hori Aristotelesen *Erretorikan* oinarrituta dago, eta Gorgiasengan. Sofista hori estiloaz bereziki arduratu zen (ik. 11. oh.) eta batasun moduan ulertu zituen bai diskurtsoak bai poesiak, zeren eta, beraren ustez, poesia, metrika zeukan diskurtsoa baitzen: ik. López Eire, 1995, 107, 114 eta, orokorrean III. Kapituluak.

¹⁵⁹ 1404.b.2.

¹⁶⁰ *Gorgias*, 503.d.7 t. hur.

¹⁶¹ Espresio egokia lortzea Aristotelesen kezka nagusietariko bat zen eta, berez, egungo *Pragmatikaren* aitzindari agertzen zaigu; ik. López Eire, 1995, 135 eta orokorrean IV. kapituluak.

¹⁶² Aristotelesengan «izenak», bai izenak bai izenondoak adierazten ditu, ik. Melero, 235, 4. oh.

¹⁶³ Hemen erabiltzen den hitzak, *sündesmos*-ak, oso esanahi zabala dauka Aristotelesen lanetan; orokorrean, esan nahi du bai hitzen arteko loturak, bai esaldi eta enuntziatuen artekoak; azken hauek lotzen dituen neurrian, diskurtsoen parteak ere batzen ditu; ik. Redondo Moyano, 1991-1992, 349-359.

Estilo gorena¹⁶⁴ eratu nahi bada, erabili behar dira: (1) esaldiak (perifra-siak edo definizioak) izenaren orde; (2) metaforak eta epitetoak, baina poetikoa dena alde batera utzita; (3) singularra dena, pluralean ipini, poetek egiten duten eran; (4) bi aukera baldin badaude gauza bera adierazteko, luzeena erabili¹⁶⁵; (5) «loturak» eta (6) objektuak ez dituen gauzak aipatu; azken hori ulertzeko Aristotelesek eredu bat ematen du: «haizeek astintzen duen gailur txikia»; hain zuzen ere, gailur txiki bat haizeak ez ohi du astintzen.

Hizkuntza egokia lortzeko erritmoa ere beharrezkoa da, baina beti neurriari; beraz, dauden erritmoak aztertzen dira eta «pean» deitutakoa¹⁶⁶ auke-ratzen da, diskurtsoetan erabiltzeko onena delakoan. Enuntziatu eta esaldien barruko eta arteko antolamendua ere aztertu eta sailkatu egiten da.

Gero, dotoretasun erretorikoa zer den azaltzen da. Espresio dotoreak egiteko, alde batetik, berezko gaitasuna behar da, eta, bestetik, hezkuntzak irakasten dizkigun entimemak. Hemen lehenengo liburuetan aztertu denarekin konexio bat egiten da, hots, diskurtsoaren edukiarekin, entimemekin; horiek dotoreak izateko ulerterrazak izan behar dute, bai edukiaren aldetik, bai forma edo espresio linguistikoaren aldetik. Metaforak¹⁶⁷ erabiltzen badira, onenak dira analogian oinarritzen direnak. Pasarte horretan metaforak oso zentzu zabalean aztertzen dira, non figura batzuk, konparaketak, erretrauak eta hiperboleak kokatzen diren.

Estiloari dagozkion baliabide orokorrak aztertu eta gero, erretorikan ematen diren genero desberdinen estiloak hartu behar dira kontuan. Hasteko, diskurtso idatziek ahozkoek baino zehatzagoak izan behar dute. Azken horiek antzeppen teatraletik hurbil daude eta landu behar dituzten prozedurak honako hauek dira: (1) aldaketak, bai ideien antolamenduan, bai espresio gramatikalean; hori lortzeko gomendatzen dira baliokideak baina desberdinak diren baliabideak; (2) errepikapenak; (3) hitzak eta esaldien arteko «loturak» ez erabiltzea (*asúndetos*) eta horren kontrakoa, (4) «lotura» asko erabiltzea (*polusúndetos*).

Erretorikan dauden hiru generoei dagozkien estiloak honako hauek dira: diskurtso politikoetan zehaztasunak ez dira beharrezkoak; hain zuzen ere,

¹⁶⁴ Latinez, *dignitas* hitzak adierazten du ideia berbera: estilo solemnea, eguneroko hizkuntzatik urrun dagoena, eta, oratoriaren eremuan, espresio garatuak erabiltzen dituen, ik. Racionero, 1990, 509, 103. oh.

¹⁶⁵ Hemen aipatzen dena da genitibo greziarrak dituen bi aukera, itzultzeko ezinezkoak direnak; beraz, emandako itzulpenean orokorrean esan dugu han kasu partikular bati buruz esaten dena.

¹⁶⁶ «Peanaren» eredu klasikoak dira «lehenengo peana» (-vvv) eta «laugarren peana»(vvv-).

¹⁶⁷ Hain zuzen ere, metaforak diskurtsoen prosari hoberen egokitzen zaizkioten figurak dira (1404.b.31). Baina metafora horiek beti testuinguruari dagozkionak izan behar dute (1405.a.10); hor ere, Platonen pentsamenduaren aztarna ikusten da: horren arabera (*Fedro* 264.c) diskurtsoak, gizaki bizidunek bezala, zati guztiak eduki behar ditu eta zati horiek koherenteak izan behar dute.

jende ugari dagoen egoeratan, perspektiba daukaten koadroetan bezala, zehaztasunak akatsak bezala ikusten dira; bestalde, diskurtso mota horietan hizlariak egiten duen antzezpenak berebiziko garrantzia dauka. Diskurtso judizialean, kontrakoa gertatzen da. Diskurtso epidiktikoak, azkenik, prosa idatzitik hurbilago daudenak dira.

Espresio linguistikoari buruzko analisia oreka edo erdigune justua eskatuz bukatzen da.

2.3.2. Hirugarren liburuaren bigarren partea diskurtso egiturari zuzenduta dago¹⁶⁸. Baina egiturari buruz ematen den teoria ez da bakarra.

Hasteko, Aristotelesek azaltzen du diskurtsoaren osagarriak bi direla: alde batetik, diskurtsoaren gaiaren azalpena eta, bestetik, frogapena, edo bestela esanda, esposatzea eta konbentzitzea: zati horiek, arrazonamendu dialektikoaren barruan dauden arazo eta frogapenen antzekoak dira. Pasarte horretan lehenengo Aristoteles ikusten dugu, zeren eta dialektikarekin parekotasun zehatza egiten baitu¹⁶⁹.

Gero¹⁷⁰, bere garaian egiten ziren diskurtso zatiketa batzuk kritikatzeko, zati gehiegi bereizten zituztelako eta generoen arabera desberdintzen ez zituztelako. Aristotelesek lau zati, gehien jota, onartzen ditu: sarrera (*proömion, exordium*), gaiaren azalpena (*próthesis, narratio*), pertsuasioa (*pístis, probatio*) eta epilogoia (*epilogos, peroratio*); gainera, zati bakoitza generoen arabera aztertzen du. Horrela, diskurtso epidiktikoen sarreretan dagoena goraipamen edo gaitzespen batetik edota gomendatzetik nahiz arbuiatzetik aterako da; edota, ukitu behar den gaia entzuleriaren gustukoa ez bada, barkamena eskatzetik. Diskurtso judizialen sarreretan diskurtsoa zertaz izango den adierazten da, epaileek alde aurretik jakin dezaten. Diskurtso politiko edo eztabaidazkoetan, aldiz, sarrera ez da hain beharrezkoa, gaia beti ezaguna delako; bakarrik egin behar da hizlaria bera diskurtsoaren gaia bada edo apaingarri moduan kokatzen bada. Jarraian, kalumnia desagerrarazteko leku komunak ematen dira.

Esposatzea¹⁷¹ (*próthesis, narratio*) edo gertatu denaren kontaketa diskurtso judizialean eta epidiktikoetan bakarrik ematen da. Bietan neurrikoa izan behar da eta gaiari dagokiona soilik kontatu behar da. Gaiaren azalpenak «etikoa» izan behar du, eta hitz horrek dituen bi zentzutan: alde batetik, salutatukoa ekintza jakin batera bultzatu duen intentzioa azaldu egin behar da, edo, bestela esanda, egindako aukera moralak agerian egon behar du. Bestetik, izaera edo nortasuna adierazi egin behar da, bai hizlariarena, bai diskur-

¹⁶⁸ 1414.a.30.

¹⁶⁹ Ik. § 2.1.2 eta (4) testua.

¹⁷⁰ 1414.b.9.

¹⁷¹ 1416.b.16.

tsoaren gaia den pertsonarena. Pasioak ere azaldu behar dira azalpen horretan, eta horiek dakartzaten ondorioak, bai hizlariarentzat, bai aurkakoarentzat. Aristotelesek gomendatzen dio hizlariari, entzulea bere alde jartzeko, azalpena egiten duen artean arima-egoera garbia erakusteko, baina aurkakoarena disimuluan adieraztea.

Pertsuasioa¹⁷² (*pístis, probatio*) lortzeko «frogek» (*písteis*) demostratiboak izan behar dute. Diskurtso judizialean eztabaidatzen diren gaiak lau direnez gero, demostrazioa halako bati buruz egingo da; hain zuzen ere, horrelako diskurtsoetan demostratu behar da, edo gertakizun bat ez dela izan; edo gertakizun batek ez duela kalterik sortu, edota kaltea ez zela hain handia izan; edo gertakizun bat benetan existitu dela; azken horretan egilea, alegia, aurkakoa «etikoki» erakutsi behar da, bere gaiztakeria agerian utzita. Diskurtso epidiktikoetan ederrak eta onuragarriak diren eginkizunak handitzea da garrantzitsua. Diskurtso politikoek judizialen antza handia daukate, hau da, eztabaidatuko da, edo gomendatzen dena ez dela gertatuko, edota gertatuko dela, baina ez dela ez justua, ez onuragarria eta ez pentsatzen den bezain garrantzitsua. Diskurtso politikoak osatzeko, «ereduak» dira oso egokiak, zeren eta etorkizunari buruz ari baitira halako diskurtsoak eta iraganean gertatua oso baliotsua suertatzen baita. Diskurtso judizialean, aldiz, entimemak dira egokiak, zeren eta iraganean gertatu dena demostratu behar baita.

Azkenik, epilogo¹⁷³ (*epílogos, peroratio*) dator, eta horrekin bukatzen da *Erretorika*. Aristotelesen arabera diskurtsoaren azken zati horretan lau eginkizun bete behar dira: (1) entzuleria gure alde eta aurkakoaren kontra jarri; horretarako hizlariak, aurkakoa ez bezala, zuzena dela azaldu behar du; (2) demostrazioan gure alde dagoena handitu, eta kontrakoaren alde dagoenari garrantzia kendu; (3) entzulerian guri komeni zaizkigun pasioak sortu eta (4) demostrazioan gure alde eman diren pausurik garrantzitsuenak gogoratu eta aurkakoarenak gutxitu, bai guk emandakoekin kontrajarriz, bai ironia erabiliz, bai horiei buruz, galderen bitartez, zalantza sortuz.

3. Amaiera

Ikusi dugun bezala, Aristoteles bere *Erretorikan* hizlariak dituen hiru eginkizunetaz arduratzen da: (1) lehenengo eta bigarren liburuan pertsuasioa lortzeko baliabideak aztertzen ditu, argudiatzeari buruz ari direnak; horiek hizlariak berak sortu behar ditu eta horrexegatik «bilaketa» edo «asmatzea» (*héuresis, inventio*) deitzen zaio eginkizun horri. Hirugarren liburuan, bai esti-

¹⁷² 1417.b.20.

¹⁷³ 1419.b.12.

loaz (*léxis, elocutio*) bai diskurtsoaren egituraz (*táxis, dispositio*) ari da. Banaketa horretan bi gauza dira azpimarratzekoak: alde batetik, mezuari (*lógos*) buruzko argudioak eta hizlariarengandik (*êthos*) zein entzulearengandik (*páthos*) datozenak maila berean kokatzea; bestalde, tradizionala zen diskurtsoaren zatiketa, berria den sistema horretan sartzea. Sistema horrek, *officia oratoris* edo «hizlariaren eginkizunak» izenpean, oso arrakasta handia eduki zuen geroko ikasketa erretorikoetan eta erromatarrez geroztik erretorikaren ohiko antolakuntza bilakatu zen.

Antolakuntza hori komunikazioaren hiru habetan oinarritzen da: lehenengo liburuan hizlariak eduki behar dituen erretorikari buruzko ezagupen orokorrak ematen dira, alegia, erretorikaren definizioa, erretorikaren generoak eta diskurtsoen antolakuntza logikoa, zeina entimemetan eta «ereduetan» oinarritzen den eta topikoen edo denek onartzen duten formulen bidez gauzatzen den. Bigarren liburuak entzulea dauka helburu, eta hizlariari esaten zaio nola agertu behar duen publikoaren aurrean fidagarria izateko eta zernolako arima-egoera sortu behar duen entzulearengan bere alde jartzeko. Hirugarren liburuak mezua bera du helburu, bai forma aldetik, bai egitura aldetik. Hizkuntzak konbentzitzeko dituen errekurso guztiak, antolakuntza logikoa, alde psikologikoa eta alde estetikoa kontuan hartzen dira egoerari dagokion diskurtsoa eratzeko.

Aristotelesen jarrera, bere *Erretorikan*, hainbatetan aipatzen den ezaugarri batean oinarritzen da: Aristoteles filosofoa zen, eta erretorikari buruzko bere ikuspuntua filosofo batena da, dialektika eta erretorika maila berean kokatzen dituenean; baina filosofo praktikoa ere bazen, eta gizakiaren nortasunari, jarrera moralei eta emozioei ere garrantzia ematen zien, hizkuntzak berak sor zezakeen plazera alde batera utzi gabe.

Bibliografia

- BERISTÁIN, H., *Diccionario de Retórica y Poética*, México, Porrúa, 1997.
- BERNABÉ, A., *Aristóteles, Retórica*, Madrid, Alianza, 2002 (1. argitalpenaren reinpresioa, 1998).
- CHANTRAINE, P., *Dictionnaire Étimologique de la Langue Grecque*, Paris, Klincksieck, 1968.
- DÍAZ TEJERA, A., «Aristóteles», in López Férez, A. (argiratzatzailea), *Historia de la literatura griega*, Madrid, Gredos, 1988.
- Elhuyar. Hiztegia*, Usurbil, Elhuyar, 2000.
- ESTÉBANEZ CALDERÓN, D., *Diccionario de términos literarios*, Madrid, Alianza, 1996.
- GUZMÁN HERMIDA, J. M., *Isócrates. Discursos. I*, Madrid, Gredos, 1979.
- GUTHRIE, W. K. C., *Historia de la Filosofía griega*, VI, Madrid, Gredos, 1981.
- JAEGER, W., *Aristóteles*, México, Fondo de cultura económica, 2001 (itzulpenaren 1. argitalpena, jatorrizkoa: 1923).
- KENNEDY, G. A., «The Rhetoric of Advocacy in Greece and Rome», *AJPh* 89 (1968), 419-436.

- KENNEDY, G. A., *The Art of Persuasion in Greece*, Princeton, New Jersey, Princeton University Press, 1963.
- KENNEDY, G. A., *Aristotle on Rhetoric*, New York-Oxford, Oxford University Press, 1991.
- LAUSBERG, H., *Manual de retórica literaria*, 3 ale, Madrid, Gredos, 1966-1968 (itzulpena, jatorrizkoa: 1960).
- LÓPEZ EIRE, A., *Poéticas y retóricas griegas*, Madrid, Síntesis, 2002.
- LÓPEZ EIRE, A., *Actualidad de la Retórica*, Salamanca, Hespérides, 1995.
- MELERO BELLIDO, A., *Sofistas. Testimonios y fragmentos*, Madrid, Gredos, 1996.
- NUSSBAUM, M. C., *La fragilidad del bien*, Madrid, Visor, 1995 (itzulpena, jatorrizkoa: 1986).
- RACIONERO, Q., *Aristóteles, Retórica*, Madrid, Gredos, 1990.
- RACKHAM, H., *Aristotle. Rhetorica ad Alexandrum*, Cambridge, Loeb, 1957.
- RAMÍREZ TREJO, A., *Aristóteles, Retórica*, México, Universidad Nacional Autónoma de México, 2002.
- REDONDO MOYANO, E., «El término σύνδεσμος en Aristóteles y en los estoicos», *Veleia* 8-9 (1991-1992), 349-366.
- REDONDO MOYANO, E., «El término πάθος en los tratados de poética», *El teatro greco-latino y su recepción en la tradición occidental*, Bari, Levante Editori, 2006, 581-617.
- ROSS, W. D., *Aristotelis fragmenta selecta*, Oxford, Clarendon Press, 1955.
- ROSS, W. D., *Aristotelis Ars Rhetorica*, Oxford, Clarendon Press, 1959 (1964).
- SARASOLA, I., *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*, Donostia, Gipuzkoako Kutxa, 1984.
- SARASOLA, I., *Euskal Hiztegia*, Donostia, Gipuzkoako Kutxa Gizarte eta Kultur Fundazioa, 1986.
- TOVAR, A., *Aristóteles, Retórica*, Madrid, Centro de Estudios Constitucionales, 1990 (lehenengo argitalpena, 1953).
- WARTELE, A., *Lexique de la «Rhétorique» d' Aristote*, Paris, Les Belles Lettres, 1982.
- WISSE J., *Êthos and Páthos*, Amsterdam, Adolf M. Hakkert, 1989.